




GOIERRITARRA



T
X
O
T
X

Arg.: M. Albisu

ANTZIZAR

kiroldegia

kirola

beasain

jakileen

laguntzaz





ESTREINALDIETAKO MERKEALDIAK

Urtarrilak 7-tik 24-ra

(edo existentziak bukatu arte)



**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**

Argitaratzailea:

Goierritarak Kultur Elkartea

Dorre-etxea, 1

(Postetxe gainean)

124 posta-kutxa

20240 Ordizia

Tfnoa: 88 96 12

Faxa: 88 27 19

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Josune Agirre

Argider Mujika

Erredakzio Batzordea:

Mikel Albisu, Joseba Telleria,
Ane Martin, Loinaz Agirre eta
Estitxu Imaz.

Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:

Joseba Telleria, Aitor Calvillo,
Xabier Urteaga, Urko Irastorza,
Koldo Urrestarazu, Edurne Albi-
zu, Josune Aldabe, Aitor Arrue,
Gabino Murua, Rufino Iraola, Jo-
sune Amondarain, Maddalen
Hernandez, J.J. Iraeta eta Pello
Barandiaran.

Fotokonposizio eta maketazioa:
GOIERRITARRA.

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga
9. Oñati)

Tirada: 6.800 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, aldiz-
karian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

HAMABOSTALDIAN NABARMEN



Astotxo festarekin, agur gabonei

Joan zen igandean, urtarri-
laren 11n ospatu zen, Laz-
kaon Astotxo festa. Ohi be-
zala, ekitaldi honekin eman
zitzaaien hain zuzen ere, ga-
bonei bukaera.

Zawopi aisialdi taldeak
antolatzen du Astotxo fes-
ta. XVII. mendean ditu sus-
traiak festa honek, 1652.
urtean. Familia Santuaren
Egiptorako ihesa oroitzen
da bertan. 200 lagun ingu-
ruk hartu zuten parte ant-
zezlanean eta haizea kontra
izan bazuen ere ekitaldi
ederra izan zen. Ikusleak
ere ugari, milaka, izan zi-
ren.

Gidoia honakoa izan
zen: Herodesek, Judeako
agintari nagusiak, Errege
dela dioten haur baten
jaiotzaren berri izan, eta
bere agintea arriskuan iku-
sirik, dekretu bat xedatuko
du. Dekretu honen bitartez,
bi urtez azpiko haur guz-
tiak hilak izan daitezela
aginduko du. Behin dekre-

tua xedatu ondoren, Ainge-
ru bat Jose, Maria eta Jesus
haurtxoa dauden estalpe-
raino hurbilduko da, Hero-
desen erabakiaren berri
ematera. Famili Santuak
une honetan ihesari ekingo
dio. Bien bitartean Hero-
des, bere soldaduak hartu
eta herriruntz joango da be-
re dekretua betzeko asmoz.
Belengo herria, Lazkao
Txiki Zelaian kokatu zen.
Herri hau izango da Jesus
haurtxoaren gordeleku, He-
rodesek dekretua betearaz-
ten duen bitartean.

Astotxo festaren barne-
an, ezin ahaztu, olatak edo
obleak erosteko ohitura da-
goela. Antolatzaileen esa-
netan, 80.000 olata saldu
ziren igandean.

Aurten, gainera, astoari
omenaldia egin zioten An-
soategi elkartekoek. Asto
erakusketa ikusgarria anto-
latu zuten plazan. Informa-
zio gehiago Lazkao ko kro-
nikan duzue.

BOTA BERTSOA



Aitor Sarriegi

(Goierriko bertso-eskolako
ikasle ohia)

Euskal selekzioa

*Doinua: Nere gorputza
dardarka daukat*

Odol garbiko mutil galaiak
defentsa nahiz atakean
eskubaloian ta futbolea
aurtengo Gabon partean.
Erdi galdurik nabil forofo
sasi-vascoen artean
nik ere golik opa ez arren
euskaldunen atean.
Urte osoa konpentsaturik
urtean behin izatean.
Ai! Zenbat erremate han!
Ze bi baloi hankartean!
Ikurrina ta bufandarekin
San Mames bete betean
zein euskaldunak garen guztiok
urtean egun batean!

Egun bateko jokaldi sorta
madrildarren kalbario
aurrerapena behar zuena
bihurtu usadio.
Balio luke pilotak behintzat
bidea egin balio
baina gu hemen horretan ere
tontoak gara, dedio!
Irten zelaira, gora Euskadi!
Begiak malko jario
aldagelara abio
hurrengorarte adio.
Norbaiti klase politikoak
kontu hartzen ez badio
Selekzioak (Konbinatuak)
batere ez du balio.

*Eusko Jaularitz-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta*

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Salaketa antzuak

Abenduaren 26an Beasaingo Udaletxean, aurreko egunean izandako gertaeraren ondoren eginiko bileraz eta bertan nik sinatutako ekintzaren ondorioz emandako informazioen aurrean, honako hau nahi dut adierazi:

1.- Nahiz eta nere asmo bakarra Euskal Herria jasaten ari den eraso bortitz eta oinarritzko eskubideen ezeztapena gaintzeko, besteengan honelako erabaki bat suposatuz zezakeen eraginagatik izan, argi geratu zena, esan ohi denez, esperimentuak gaseosarekin egin behar direla eta inoiz ezin dela nahastu gogo eta errealitateak duen benetako egoera.

2.- Beraz, bertan nik azaldutako jokaera boluntarismo hutsa izateaz gain, kasu honetan, Beasaingo HBko Udal ordezkari izateak suposatzen duen existentzia maila ez nuen ondo bete.

3.- Zoritzarrezko erabaki honek eragindako kaltea ezin konpondu baina Euskal Herriaren burujabetasunaren alde, hemen eta han, atzerrian, espetxean, kalean, instituzioetan, bultza eta lan dabiltzan hainbat eta hainbat borrokalariei —hauei bai— bidali nahiko nieke nire sinadura. Eta Beasaingo Herri Batasuna eta ezker abertzaleko militante, edo erabaki honek kezkatu dituen adiskide guztioi gertakari honetatik ateratako ikasbidea azaldu, bide batez: labankadek lokatzetan ematen direlako ez dute ezertarako balio, honen desager-

pena eskatzea edo beti eguraldi ona egin dezan errogatibak egitea alferrik delarik, aldiz lurrari berari dagozkion baldintza naturalak, oinarritzko eskubideak, ematetik desagertuko da betirako lokatza.

Andoni Antxia (Beasaingo Herri Batasunako zinegotzia)

Lareoko Batzarra

Kabittuko ote zarete!, dedioro! Zuek gizakiak izan kuantu. Baina ze uste duzue, bada, zuek. Txikitzea beste konturik ez duzue. Errejudas! Noiz ohartu behar ote duzue Bizitza biziz bizitzen dela, eta ez... Martxa koxkorra hartu duzue, koxkorra hartu duzue.

Zuek "autista" konpletoak bihurtu zaretela, hots,

Ni, Ni eta Ni, eta ala! gaitetiko guzti-guztiak jo eta txikitu. Nahikoa dugu horrik, nahikoxe!

Ba ez. Apaldu zaitezte, apaldu, ezen osterantzean, zuek daukazue harria, zuek! Gurea pasatuko da, gorrixeko edota beltzaxeko. Zuen da errukarria, zuena. Itzartzen zarete edota amets beldurgarriak izango dituzue ordainetan. Odolez eta sufrimenduz eginak.

Gora Bizitza! Berauxe da 'Lareoko Batzarra' lauhaizetaratu nahi duena. Horretarako, oinarri-oinarri, "Inor ez dago soberan".

Eskerrik asko gutaz gogoratzeagatik. Jakin badakigu xelebretzat hartuak zaretela, halere, segi horrelaxe, ez etsi. Eta noizkuandotan esan, txarrean ere guk badakigula eta, argi ibiltzeko. Bizi!

*Pello Sarriegi (Barrika)
'Lareoko Gizakiz Kanpoko Batzarreko kidea'*

Besteek esana



“ Injustizia da lana egin nahi eta ez ahal izatea, beraz hitz baino zerbait gehiago egin behar da”.

*MARTIN AUZMENDI
Lan Kontseilari ohia
EL DIARIO VASCO*

“ Lanbide heziketak berez ez du lanik sortzen baina langileak gaitzen eta enpresak erregeneratzen ditu”.

*JOSE LUIS ELORZA
Beasaingo PSE-EEko zinegotzia
EL DIARIO VASCO*

“ Beasain zuzenean Goierriren etorkizunaren menpean dago, baina bere baitan ere bai”.

*JON JAUREGI
Beasaingo Alkatea
EL DIARIO VASCO*

EGUTEGIA 1998

GOIERRITARRA

HAMABOSTEKARIA

AA AOOL I	AA AOOL I	AA AOOL I
1 2 3 4	1	1
5 6 7 8 9 10 11	2 3 4 5 6 7 8	2 3 4 5 6 7 8
12 13 14 15 16 17 18	9 10 11 12 13 14 15	9 10 11 12 13 14 15
19 20 21 22 23 24 25	16 17 18 19 20 21 22	16 17 18 19 20 21 22
26 27 28 29 30 31	23 24 25 26 27 28	23 24 25 26 27 28 29
AA AOOL I	AA AOOL I	AA AOOL I
1 2 3 4 5	1 2 3	1 2 3 4 5 6 7
6 7 8 9 10 11 12	4 5 6 7 8 9 10	8 9 10 11 12 13 14
13 14 15 16 17 18 19	11 12 13 14 15 16 17	15 16 17 18 19 20 21
20 21 22 23 24 25 26	18 19 20 21 22 23 24	22 23 24 25 26 27 28
27 28 29 30	25 26 27 28 29 30 31	29 30
AA AOOL I	AA AOOL I	AA AOOL I
1 2 3 4 5	1 2	1 2 3 4 5 6
6 7 8 9 10 11 12	3 4 5 6 7 8 9	7 8 9 10 11 12 13
13 14 15 16 17 18 19	10 11 12 13 14 15 16	14 15 16 17 18 19 20
20 21 22 23 24 25 26	17 18 19 20 21 22 23	21 22 23 24 25 26 27
27 28 29 30 31	24 25 26 27 28 29 30	28 29 30
AA AOOL I	AA AOOL I	AA AOOL I
1 2 3 4	1	1 2 3 4 5 6
5 6 7 8 9 10 11	2 3 4 5 6 7 8	7 8 9 10 11 12 13
12 13 14 15 16 17 18	9 10 11 12 13 14 15	14 15 16 17 18 19 20
19 20 21 22 23 24 25	16 17 18 19 20 21 22	21 22 23 24 25 26 27
26 27 28 29 30 31	23 24 25 26 27 28 29	28 29 30 31

GOIERRITARRA

kaleratuko den eguna.

Bertan argitaratzeko materiala (artikuluak, eskutitzak, publizitatea...) astebete lehenago jasoko da, beranduenez.

TXANDAKA

Hitz xorta bat

GOIERRITARRAren zoko honetan "Txandaka" gabiltzenak gure gogoeta, ikuspuntu, kezka edo sinpleki hitztxo batzuk jartzen ditugu dantzan.

Buruari biraka jartzean sailkatzen ditudan hitzek naramate idaztera eta maiz kezka potolo ugari darabilkit: Iker hire etorrera haien artean. Hau kezka baino gehiago berri on bat da, hala ere festaren mamiak, kasu honetan hik Iker, ez duk berri hau zenbait kezka eta gakoen zipriztinez busti gabe gelditu zedin utzi. Bertso txapelketan esan zutenaren moduan: "gehienok gutxien erabiltzen dugun" hori, burua alegia, jarri diguk martxan guri. Mila esker hiri...

Ilunpetik atera bahaiz ere, ez duk hemen gogoko argirik aurkitu, ezta elurrak hire sua amatatu. Bi urte t'erdiko arazo berberen presentziak eta lagunak barruan uztearen ilunpea oraindik nagusi duk hiregan, hori diote hire aurpegi espresioak, hitz zorrotzek, egiaz gizendutako hitz gordinek.

Gitarra soinuaz eta ahots gozoaz, bertso dotore eta afari jendetsuak bezalako momentu epelek "tarte txikiagoa" behar dutela diok honetarako bestelako "tarte handiagoak" sortuz. Hala egin dezagun beste inork galdetu ez dedin Ikerrek antzokian bezala: "komoneta nundik jutea?".

Maddalen Hernandez Irastorza



Ekonomia hobeto doala esaten da, zuk nabari al duzu?



Jose Luis Insausti

38 urte, langilea
legorretarra

Guretzat lantokian nahiko urte ona izan da. Baina nire ekonomia berdintsu dago, prezioek ere gora egiten baitute.

Pello Olariaga

39 urte, tabernaria
gabiriarra

Ikusten da dirua badagoela. Baina gure kasuan berdintsu gaude, kontsumitzeko ohitura aldatzen ari da, batez ere astean zehar.



Xabin Azurmendi

31 urte, harakina
zegamarra

Guk ez dugu aldaketarik nabaritu. Bezero fijoek berdin jarraitzen dute. Eskaintzen arabera mugitzen da jende gehiago.

UNTXUNDEI
garajea

OSINALDE
karrozategia

☎ 88 28 21 - 16 07 06
ORMAIZTEGI



MUJICA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 88 11 94
ORDIZIA

BEASAINGO



EUSKALTEGIA

Ikastaroak:

- Alfabetatze
- EGA
- Euskalduntze

Matrikulaldi epea:
urtarrilaren 19ik 30era

San Martin Pl, Kultur Etxea
☎ 80 52 54 BEASAIN

ZINEA

GOIENIZ:

Urtarrilak 29, 'Carretera perdida', 21:00etan, Beasaingo Usurbe Antzokian

BEASAIN:

'007. El mañana nunca muere'. Ostirala 16, 22:15; larunbata 17: 19:30 - 22:15; igandea 18: 17:00 - 19:30 - 22:15; astelehena 19: 19:30 - 22:15.

ORDIZIA:

'Conspiracion'. Ostirala 16: 22:15; igandea 18: 19:30 - 22:15; astelehena 19: 19:30.

'George de la jungla'. Larunbata 17: 19:30 - 22:15; igandea 18: 16:45.

'El pacificador'. Ostirala 23: 22:15; larunbata 24: 19:30 - 22:15; igandea 25: 19:30 - 22:15; astelehena 26: 19:30.

'Solo en casa III'. Igan-dea 25: 16:45.



'Carretera perdida'

David Lynch (EEBB, 1996)

'Twin Peaks' (1992) luze-metraiarekin hartutako muturreko galantari (inguru hauetan ez baitute estreinatu ere egin) erantzun nahian edo, sekula baino indartsuago eta ausartago itzuli zaigu David Lynch thriller harri-garri honekin, bere betiko miresleen gozamenerako eta denok aho bete hortz utzi asmoz. Izan ere, hau ez da filme arrunta baina arraroen artean ere, non kokatu? Lyncheke zure inguruan edo barnean izkuta daitezkeen bide-tatik eramango zaitu, berak bakarrik dakien bezala.

Istoriaa bihurria ezezik korapilatsua ere izan daiteke, baina ez dio axola; autopista muturren aurrean duzu ilun, libre. Beraz presta zaitetz (inorako?) bidia zurrunbilotsurako. Oso erne musikarekin!; zirrara nabari da... ez zara damutuko.

BERTSOLARIAK

BEASAIN:

Urtarrilak 24, Bertso-afaria, 20:30etan, Garingo San Sebastian jaietan. Bertsolariak: Ekaitz Goikoetxea eta Haritz Zeberio.

ZEGAMA:

Urtarrilak 17, Bertso-saioa, Kiroldegian, gaueko 10.30etan: Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Unai Iturriaga, Mikel Mendizabal, Jon Maia, Aritz Lopategi, Maialen Lujanbio eta Joxe Mari Irazu. Gai-jartzailea: Pello Urretabizkaia.

ANTZERKIA

ZALDIBIA:

Urtarrilak 17, Azpeitiko Antxieta antzerki taldearen 'Hamar minutu gauerdiraino' lana Antzokian, 22:00etan.

MUSIKA

BEASAIN:

Urtarrilak 24, Elliot Murphyren kontzertua, 19:30etan, Usurbe Antzokian. Sarrera: 800 pezeta.

IKASTAROAK

BEASAIN:

Urtarrilaren 19an hasita, 'Informatika Excel 97: kontabilitaterako oinarriko aplikazioak' ikastaroa, Asmuben, 9:00etan.

Urtarrilak 19, otsailean antolatuko den 'Informatika Word 97' ikastaroan parte hartzeko izena emateko epe-irekitzea. Astelehen, astearte eta ostegunetan, 16:00etatik 18:00etara, Asmuben.

Urtarrilaren 26an hasita, 'Barne-aurkikuntza' ikastaroa, Asmuben, 15:30etan.



MARIAN LARREA
BARNE DEKORAZIOA

- ✗ ERREFORMAK
- ✗ PROIEKTUAK
- ✗ ESZENOGRAFIA

☎ 88 58 48 - 46 34 79

Oriamendi, 30 BEASAIN

JOSUNE & KLAUDE
ileapaindegia & edergintza

Edergintza eta ileapaindegia
tratamendu guztiak

Iturtxo, 5 ☎ 16 22 56 ORDIZIA

CGZ GOIERRI
Ikerketaren Zentrua

Gida-agiri eta arma baimenatarako ikerketak

Astelehenetik ostiralera: 11:00etatik 13:30etara.
Larunbatetan: 9:30etatik 11:00etara.

Garagarza Pl. 10 ☎ 888734 ORDIZIA

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a

☎ 88 17 00 - 88 17 04

BEASAIN

ERAKUSKETAK

BEASAIN:

Martxoaren 13a arte, IV. Aterpe pintura lehiaketan aurkeztutako lanen erakusketa, Aterpe tabernan.

ORDIZIA:

Urtarrilaren 16tik 30era bitartean, Ignazio Elizaran Txapartegiren pintura erakusketa, Barrenan.

Renfeko marrazki eta ipuin lehiaketak

Renfek haur eta gaztetxoentzako II. marrazki lehiaketa eta Igo narrazio laburren lehiaketak antolatu ditu.

● **Marrazki lehiaketa:** 6-14 urte bitartekoek har dezakete parte. Renfe-Hurbileko tren batetik ikusten den munduetako baten marrazkia egin beharko dute, A4ko neurrian. Marrazki original bakoitzak atzealdean egilearen datu pertsonalak idatzita eramango ditu eta Renfe-Hurbileko treneko bilete bat ekarri beharko da. Lanak Donostiako geltokian dagoen Pizza Hut-en aurkeztu behar dira martxoaren 15a baino lehen. 20 sari banatuko dira guztira.

● **Narrazio lehiaketa:** 8-17 urte bitartekoek har dezakete parte. Lanen luzera: gutxienez 3 orrialde eta gehienez 10ekoa. Gaiaren muina trenbidea izango da. Urtarrilaren 20an bukatuko da epea. Donostiako Bilintx liburudendan (Fermin Calbeton, 21) aurkeztu behar dira. Lan originalekin batera datu pertsonalak eta Renfe-Hurbileko trenaren tiketa bidali beharko dira. 3 sari eta 7 akzesit banatuko dira.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Cuesta (Nafarroa Etorb. 39-Beasain).

Urtarrilak 17-18: Cuesta (Nafarroa Etorbidea, 39 - Beasain).

Urtarrilak 24-25: Atorrasagasti (Gipuzkoa kalea, 15 - Ordizia).

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Etxebizitzak:

□ Pisua salgai Seguran, kale-kalean, garage eta guzti. Deitu 18 74 88 telefonora.

□ Zaldibian pisua salgai. Herri erdian. 216653 telefonora deitu.

□ Alokatzeko baserri baten bila gabiltza. Berdin zaigu zein egoeretan dagoen. Deitu goizetan: 882827.

Salerosketak:

□ Sanyo Walkmana eta forro polarra salgai. Koldo. 88 22 78.

□ Kerosenozko bero-gailua salgai. Deitu 723504 telefonora, iluntzetan.

□ Pottoka zaldia salgai. Gaietan ibiltzeko hezita. 161828.

□ Bi metroko tresillo ia berria salgai. 20:00etatik 22:00etara deitu: 889687.

□ 5 erregistroko esku soinua salgai. 88 83 18. Eguerdietan edo gauetan deitu.

□ Metal zone MT2 distortsio pedala eta Peabe TKO baxu anplia salgai, 80 batiokoa. 884768. Jon.

□ Disko singleak erosten ditut. 52 65 77.

□ Vanette furgoneta salgai, kanpinerako pres-tatta, sukaldea, hozgailua, ohea... 88 20 37.

Lana:

□ Bajista bat behar da herriz herri jotzen ari den talde baten lan egiteko. Seriotasuna. Xabi. 801124.

Bestelakoak:

□ Altzari zaharrak botatzeko baldin badauzkazu, gu joango gara jasotzera. Eneko. 88 15 73.

□ San Miguel Arcangel kontsultoria: bidentzia, kartak botatzea, aura garbiketa eta zazpi potentziatuko bainua. 16 06 79 - 88 99 83.

BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8

☎ 88 04 53

BEASAIN

IKASTEK AKADEMIA

Kalitatea eta profesionaltasuna

- ✓ Eskola laguntza
- ✓ Maila eta arlo guztiak
- ✓ Unibertsitate-maila
- ✓ Banakako laguntza
- ✓ Talde txikiak

Informazioa:

☎ 16 01 20 Joan Iturrialde, 5 BEASAIN

J.J. Iraeta (Zaldibia)

Herri ezberdinez osatua dago mundua eta ezberdintasun horiek gauza anitzetan nabarmentzen dira, hala nola hizkuntza, enda, folklorea, ohiturak etabar. Zaldia, giza bizitzari oso lotua egon denez, lurralde bakoitzeko ezaugarria izan da. Zenbait lekuko bereziak dira zaldi ingelesak, arabiarak, andaluzak, mongoliarrak, etabar luze bat.

Euskaldunok, herri zaharra geranez, aspaldiko zaldi mota bat izan dugu geurea, —Santimamine, Ekain eta abarreko koba-zuloetan orain eta milaka urte garai hartako euskaldunek marraztu zutena—, eta horixe da euskal pottoka. Baina beste arloetan gertatu zaigun bezala, hontan ere kanpokoak hartu du bertakoaren lekua eta geure mendietan pottoken partez, haragitarako emankorrakoak direlako edo, zaldi haundia-koak ikusten ditugu. Honela Euskal Pottoka ia desagertu zaigula esan leike, eta gaur egun Larrun mendian, bertako sorginak babestuta edo, eta Bizkaiko Karrantza aldeko mendi galduetan aurkitu leizke banaka batzuk soilik.

Ondare hau erabat galduko dugun arriskua ikusirik, izan dira, bai Iparraldean eta bai Hegoaldean, pottokei eustearren sortutako ekimenak, horietan Bizkai eta Gipuzkoako Diputazioak mar-tan jarritakoak.

Pottokaren atzerakada ez

Euskal pottoka

da aspaldikoa izan, baina bai denbora laburrean burutua. Ez da aintzinako kontua, Valenciatik etortzen zirena Santa Luzitan Zumarragara pottoken bila, laranjaondo artean lan egiteko egokiak zirela eta!. Berdin Bizkaiko meatzetan aritzeko onak omen ziren eta geure baserrietan ere ezinbestekoa zen pottoka ala asto koxkorren bat tratuak merkatura jeisteko edo kalean egindako erosketak etxeratze-ko, baina oraingo bizi-moduan onerako edo txar-rako lan horiek bukatu dira. Orduan esan leike, zer etorkizun du pottokak ez badu ezertarako balio? Ba bai jau-na bere balioa badu. Badirudi ez direla ugariak salto egiten duten zaldi motak, eta horietako bat geure txikia dela. Hortaz, ongi heziaz gero, hipikarako balio handia izan

dezake, batez ere kirol mota hortan gaztetxoak hasteko. Zalditegiak ere ugaritu dira nabarmen eta hauetan dabil-tzen haurrentzako oso ego-kiak dira pottokak.

Hauek hala, eta Euskal Pottoka berreskuratzea hel-buru, sortu da Zaldibain ZA-PE (Zaldibiako Pottoka El-karte). Dagoeneko ekarri di-tuzte Bizkaitik behor pare bat eta Iparraldetik zenbait beho-ka eskuratzeko asmoa dute, gero Diputazioko zaldiekin estaltzekotan. Hau hasiera da eta lana ez dute laburra eta erraza izango, ondarea berreskuratzeak galtzea baino zailtasun haundiagoa izaten baitu, baina gazte hauen ani-moa ikusirik laster dira ain-tzinako eran Pottokak korri-ka Aralarko larreetan. Ekin-tza hau ez dihoa noski gana-duzaleen aurka, baina gaur egun haragitako zaldiak ema-ten duena ikusirik, ez litzate-ke harritzekoa behor haun-diak alde batera utzi eta po-ttoketara bat baino gehiago itzultzea.

“Euskal Pottoka berreskuratzea helburu, sortu da Zaldibain ZAPE (Zaldibiako Pottoka Elkartea). Dagoeneko ekarri dituzte Bizkaitik behor pare bat eta Iparraldetik zenbait behoka eskuratzeko asmoa dute, gero Diputazioko zaldiekin estaltzekotan”.



AUSO EGI

Urdaneta, 41
©-Faxa: 88 95 76
ORDIZIA

- ✗ Tximini eta egurrezko ekonomikak
- ✗ Berogailuak
- ✗ Iturgintza
- ✗ Zeramika erakusketa
- ✗ Bainuko altzariak
- ✗ Erreforma osoak



ERREZETA



*Elena eta Eukene
Eroski kafetegia
Ordizia*

ESNE KONDENTSATUZKO FLANA

Osagaiak: esne kondentsatu pote bat, esnea kopuru bikoitza, 4 arrautza eta 3 goilarakada azukre.

Kristalezko ontzi batean 2 goilarakada azukre eta ur tanta batzuk bota eta mikrouhin-labea sartu, % 100eko potentzia, karamelua egin arte. Hiruzpalau minutu nahikoa dira.

Beste ontzi batean esne kondentsatua, esnea, arrautzak eta gelditzen den azukrea ondo nahastu. Mikrouhin-labea sartu 6 minutuz, potentzia handiengan. Jarraian nahasketa karamelua dagoen ontzira bota eta mikrouhin-labea sartu potentzia handiengan, 6-8 minutuz, flanak gorputza hartu edo solido gelditu arte.



Pello Barandiaran
Abokatua
Gertu aholkularitza

Etxe berean jabe desberdinen arteko elkarbizitza ez da sarritan erraza gertatzen. Liskar asko sortzen da zenbait jende bere etxebizitzan nahi duena egin dezakeela pentsatzen duelako nahiz denenak diren elementuekiko inongo ardurarik ez duelako.

Solairu desberdinetan zatitutako etxe batek, bi elementu mota ditu: elementu 'pribatiboak' edo norberarenak soilik direnak, eta elementu 'komunak' edo guztienak.

- **Elementu pribatiboak:** bizilagun bakoitzak etxebizitza, eta eskriturretan horrela agertzen den kasuan, garajea, trastelekua eta abarren gain, beste inorena ez den jabegoa izango du.

- **Elementu komunak:** Etxearen erabilpen egokirako beharrezkoak diren elementuak; adibidez, eskailerak, atariak, urbideak, lurra, etxearen egitura, teiatuak... Elementu hauen-

AHOLKUA

Etxe berean elkarbizitzen

gan, bizilagun bakoitzak eskriturretan agertzen den proportzioan izango da jabekidetzatza.

Bizilagun bakoitzak, bi elementu mota hauekiko betebeharrak eta eskubide batzuk dira.

Elementu pribatiboak

Eskubideak:

- Etxebizitzaren gaineko jabegoa.
- Saltzeko, etxearen gain karga bat (adibidez, hipoteka) nahiz zatitzeko eskubidea.
- Etxean erreformak egiteko ahalmena, etxearen egiturari kalterik egiten ez dioten neurrian.
- Alokatzeko eskubidea.
- Dohantzan nahiz usu-fruktuan emateko aukera.
- Jabeen batzarrak hartutako erabakiei aurka egiteko eskubidea.

Betebeharrak:

- Etxebizitza modu egokian mantentzea.
- Etxebizitzatik pasatzen diren gas eta berogailu instalazio nahiz beste edozein elementu errespetatzea.
- Jabe guztien interesak kontutan harturik egiten diren konponketetarako

nahiz zerbitzu berrien ezarpenetarako bere etxebizitzan sartzen uztea.

- Estatutuaren debekatuta dauden ekintzak, etxerako kaltegarriak direnak nahiz arriskutsuak ez egitea.

Elementu komunak


Eskubideak:

- Elementu komunak erabiltzeko eskubidea, beti ere beste jabeek eskubide bera dutela kontutan izanik.
- Elementu komunetatik sor daitezkeen etekinetan partehartzea (adibidez, atari zati baten alokairua).

Betebeharrak:

- Elementu komunaren erabilpen egokia.
- Gastu orokorretan aurrez finkatutako kantitateak ordaintzea.
- Estatutuaren debekatuta dauden ekintza, etxerako kaltegarriak direnak nahiz arriskutsuak ez egitea.

Etxe berean bizitzea zaila gertatzea bada ere zenbait kasutan, geure eskubide eta betebeharrak ezagutzeak asko lagun diezaiguke, besteek errespetatzen ditugun heinean izango baitira errespetatuak geureak.



ondoeta

Nagusia, z/g.

Tfnoa.: 883102. Faxe: 88 0872

ITSASONDO

ALTZAIRUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

Bi ertzainen autoen erreketak

Azkeneko aldizkaria atera genuenetik, bi ertzainen auto erre dituzte Goierriin. Lehenengoa, abenduaren 25ean, goizeko 10.00etan, Beasainen, autoa gasolinaz busti eta ondoren sua emanaz. 'Egin' egunkarian erreibindikatu zuten, HBko mahaikideen espetxeratzea salatzeke egin zuten ekintza. Beasaingo Udaleko bozeramaileen batzordeak eraso gaitzetsi zuen abenduaren 26an egindako bileran. Gaitzespena EAJ, EA, PSE-EE, IU, PP eta HBko ordezkariak siantu zuten. Agirian salaketaz gain, elkartasuna adierazten zaio ertzainari, eta hirugarren puntuan herritarren bizitza baketsuari ez diola batere laguntzen dio. HBko zinegotzi batek agiria sinatu bazuen ere, Beasaingo HBk bestelako jarrera azaldu zuen. HBren esanetan, ez dute autoa erretzea ez txalotzen ez salatzen. Era berean, "Udalaren organo ofizialetatik kanporatu gaituzten neurrian, gaur goizeko (abenduak 26) ez dugu ontzat hartzen". Azkenik, "Udalaren arinkeria" salatu zuen HBk, "konponbiderik bilatzen ez duen salaketa bat egin duelako".

Bigarren autoa, urtarrilaren 6 goizaldean, Ordizian izan zen kaltetua. Peugeot 306 markako autoa, erabat erreta geratu zen burua estalita zuten lau gaztek leihoak hautsi eta barrura erregaia isuri eta sua eman ondoren, Herriazaingo Sailaren arabera. "Ertzaintzak duen jarrera errepresiboa" salatzeke erreibindikatu zuten erasotzaileek. Ordiziako Udalak gaitzetsi egin zuen eraso.

Ataundarren %55,6 Marumendiko borden proiektuaren alde

Ataungo Udalak, Bilboko Cindes etxearen eskutik, azaroaren 26an 193 lagunen artean egindako inkestaren arabera, Lareo inguruko Marumendiko borden proiektuaren inguruan % 55,6ak oso iritzi ona edo nahiko ona agertzen du eta % 44,4ak nahiko iritzi txarra edo oso iritzi txarra.

Auzoka banatuz, San Martinen % 64,1ak proiektuari buruz oso iritzi ona edo nahiko iritzi ona duen bitartean, San Gregorion % 53ak nahiko iritzi txarra edo oso iritzi txarra du. Aian ere proiektu honen kontrako iritzia nagusitzen da; auzo honetan % 73,6ak nahiko iritzi txarra edo oso iritzi txarra du.

Proiektuak herrian izango duen eraginari buruz ere

galdetu die ataundarrei. % 59,2ak uste du lanpostuak sortuko direla, eta % 53,6k, aldiz, herriko bizitza berpizten lagunduko duela. % 50k diotenez, herria aberasteko balioko du Marumendiko turismo-guneak. Borden proiektuak eragin ekologiko kaltegarriak izango dituela uste du % 59,2ak. Ataundarren % 51,7ak ez dute uste proiektuak ataundarren nortasuna jasotzeko balioko duenik.

Enirio Aralar Mankomunitatea

Enirio-Aralar Mankomunitateak Eusko Jaurilaritzaren Ingurugiro, Nekazaritza eta Arrantza Sailak eman duen Gonzalo Nardiz saria jaso zuen, abenduaren 23an. Mankomunitateak ingurugiroa kontserbatzeko eta belaunaldi ezberdinetan baliabide naturalak babesteko



Bilkura ixilak

Jose Inazio Iruretagoiena Zarauzko PPko zinegotziaren hil-keta salatzeke, Eudelen (Euskadiko Udal Elkarte) deia-ri jarraituz, 10 minutuko bilkura ixilak egin ziren Udaletxe aurreetan, urtarrilaren 12an, eguerdiko 12.00etan hasita. Udaletxeko langileez gain, hainbat eta hainbat herritarrek bat egin zuten deiarekin. Argazkian, Lazkaoko bilkura duzue, as telehena zenez, peri eguna zer bertan.

izan duen eta duen izpirituagatik eman zaio saria. Oroigarria eta 1.500.000 pezetako saria jaso zuen, Juan Bizente Erauskin Ordiziako alkateak.

Cuesta

Beasaingo Nafarroa Etorbideko 39. zenbakian dagoen Cuesta farmazia izango da astelehenetik ostiralera, gaueko 8.30etatik goizeko 9.00ak bitartean irekita egongo dena. Iaz Ordiziako Arriolak bete zuen lan hori. Asteburuetan, ohi bezala, txandakako sistema izango da. Agendan izango duzue informazio zehatza.

Gurutze Gorriaren ibilgailu berriak

Goierriko Gurutze Gorriak egokitutako ibilgailua aurkeztu zuen urtarrilaren 9an. 9 lagunentzako lekua du, mugikortasun desberdinekin. 7 milioi pezeta baino gehigoko kostua izan du, eta Goierriko erakunde, enpresa, komertzio eta partikularrek finantzatu dute.



Iparragirre anai-arrebak

Koldo eta Arantxa Iparragirre beasaindarrek irabazi zuten EITB Trikiti Saria, abenduaren 27an. Aitor Letamendia beasaindarra eta Ainhoa Munduate eta Olatz Nograro idiazabalarrak ere finalistak izan ziren. Iparragirre anai-arrebek txapel honekin agur esango diote elkarrekin jotzeko jardunari, Arantxak utzi egingo baitio panderoa jotzeari. Dena den, Koldok taldearekin jarraitzeko asmoa dauka eta baita disko berria ateratzeko ere.



Inuxente eguna Seguran

Abenduaren 28an inuxente eguna zela eta itxura honetan azaldu zen Segurako kronista dugun Joseba Telleriaren aurota. Umorerik ez da falta Segura aldean.

Irati Goikoetxea

Eusko Jaurlaritzako Justizia sailak antolatutako 'Giza Eskubideak' leloko idazlan lehiaketan, lehen saria jaso

zuen Irati Goikoetxea beasaindarrak, 15 urte bitarteko artean, 'Giza-eskubideen gorpulean erantzunaren bila' lanarekin.

Ekaitz Goikoetxea

Erreterian, Xenpelar bertso-eskolak antolatutako Zapi-irani Anaiak IX. Bertsopaper lehiaketako lehen bi sariak irabazi ditu beasaindarrak, 18 urte bitartekoentzako atalean. 'Lazkao Txiki' eta 'Arrosa arteko arantza' izenburupean idatzi zituen bertsoak.



Aitzol Munduate

11 urteko ataundarrak, 14 urte bitarteko mailako lehen saria eskuratu zuen Leioako bertsopaper lehiaketan. 'Amaseen arteko eztabaida, semeak belarritakoa jarri nahi duela eta' zen gaia.

Igor Aristegi

Santo Tomas egunez banatu ziren Hondarribin 'Satarka' poesia lehiaketako sariak. Bertan, Igor Aristegi Urkia, hamazazpi urteko beasaindarrak 2. saria jaso zuen, 18 urte bitarteko artean 'Abailduriko lilien alegoria' lanarekin.

Goienizen ziklo berria martxan atzodanik

Goierriko zine-klubak zazpi pelikulek osatutako 97-98 denboraldiko bigarren zikloa jarri zuen martxan atzo. Bi urte dira berriz ere zine-klub saioak hasi zituenetik, eta ziklo berri honek, Goienizen finkatzea adierazten du.

Apirilaren 2ra bitartean iraungo de zikloak. Ohiko luzemetraiez gain, 5 filme labur, 'Ahaztezinak' sailean klasiko 1 eta ikusle goak aukeratutako bat pantailaratuko dira. Ahaztezinak sailean, Fellini omenduko dute 'Amarcord' filmearekin. Ikusleek aukeratutakoa, 'Tesis' da. Hau guztia, ohi bezala, Beasaingo Usurbe Antzokian, gaueko 9.00etan. Ziklo osorako abonua ere badaude, 2.000 pezetan. Azken hauek, Usurbe Antzokian bertan eta, Beasaingo Blues Brothers eta Basakana tabernetan, eta Ordiziako Leizea tabernan eta Baga Biga dendan eros daitezke. Saio bakoitzeko sarrerak 450 pezeta balio du. Programazioa hauxe duzue:

Urtarrilak 29: 'Carretera perdida'. Zuzendaria: David Lynch.

Otsailak 12: 'La otra america'. Zuzendaria: Goran Paskaljević. Laburmetraia: 'Cien maneras de hacer el pollo al chilindron'. Zuzendaria: Kepa Sojo.

Otsailak 26: 'Lisboa story'. Zuzendaria: Win Wenders. Laburmetraia: 'Casting' (azpitu-tituluak euskaraz). Zuzendaria: Guido Manulli.

Martxoak 12: 'Amarcord'. Zuzendaria: F. Fellini.

Martxoak 26: 'Un héroe muy discreto'. Zuzendaria: Jacques Audiard. Laburmetraia: 'La puerta'. Zuzendaria: Michael J. Calessens eta Rene Bijloo.

Apirilak 2: 'Tesis'. Zuzendaria: Alejandro Amenabar. Laburmetraia: 'Oedipus'. Zuzendaria: Fernando de Felipe.

Ostiela!

Ostiela! aldizkariaren 8. zenbakia kalean da dagoneko. Elkarriketa nagusia Joxe Azurmendi filosofo zegamarrari egin diote.

Iparragirre sariak

EITBk banatzen dituen Iparragirre sarietan, hiru goierriar saritu dituzte. Andoni Aizpuru gabiriarra, ETB-leko informatiboetako aurkezlerik onena izendatu dute. Arantxa Irastorza zaldibitarra, Euskadi Irratiko esataririk onena. Eta Karlo Argiñano sukaldari beasaindarrari, sari berezi eman diote.

San Silbestreak

Beasaingo San Silbestre proba Miloudi Badinek irabazi zuen, gizonetako mailan. Natalia Azpiazu izan zen emakumezkoetan, lehena. Ordizian nagusie-

nen mailan Beasaingo Manu Hurtadok irabazi zuen, gizonetako atalean. Emakumezkoetan, Maider Gaztañagak irabazi zuen. Benjaminetan Ander Biguri eta Nahikari Migelez izan ziren garaileak. Eta alebinetan, Egoitz Iztueta eta Maite Leturia. Beteranoen saria Bittor Maiorak jaso zuen.

Josune Bereziartu

Gipuzkoako kirol-kazetariak Josune Bereziartu eskalataile beasaindarrari saritu zuten.

Cortebianco Bidebieta

Ordiziako Nazioarteko Erregetako txapelketako Cortebianco Bidebieta taldeak irabazi zuen, finalean, Madrilgo Juventud Leganesi irabazi ondoren.

DOMINGO HARINA ENOLOGOAREKIN BERRIKETAN:

"Sagardoa denboraldi hasieran oso ona egongo da, arazoak, kontserbatzen izango dira"

Domingo Harina nafarra enologoa da, "sagardoaren teknikoak". Inguruko sagardotegietako sagardoak probatu, kontrolatu eta zaintzen ditu. Sagarra kontrolatzetik hasten da bere lana. Sagardoaren inguruko xehetasunak kontatu dizkigu Domingok.



Domingo Harinak sagarretik botilararteko prozesua kontrolatzen du. Berak dioenez Goierriko sagardoak ez du Beterrikoaren inongo inbidiarik izan behar.

- Zer da enologo baten funtzioa?

- Enologoa teknikoak da. Kontrol lana egiten du, sagardoaren eskuhartzea oso mugatua da, ohituragatik. Sagardoren batek edozein momentutan manipulazioaren bat eskatzen badu, gehiagora iritsi aurretik egin behar izaten da. Arazoak alterazioengatik sortzen dira. Sagardoa bakteriarik gabea izan behar da. Bakteriarik gabea izan behar da. Bakteriarik gabea izan behar da. Bakteriarik gabea izan behar da.

- Noiz hasten da enologoaren lana?

- Sagarrean. Gaur egun sagarra ez da gehiegi kontuan hartzen. Sagardoa sagarra-ekin egiten da. Ez da nahikoa esatea sagarra Galizia-koa, Asturiaskoa, Goierri-koa edo Beterrikoa dela. Sagarrak ona izan behar du. Sagarra ona izan daiteke Galizian, Asturiasen, Goie-

rrin, Normandian edo beste nonbaiten. Baina hori ez da go jatorrian. Jatorriak joera batzuk markatzen ditu. Asturias, Galizia eta Portugal iparraldekoak, sagar garratz-mikatzak izaten dira. Frantziakoak gozo-mikatzak dira. Frantziako sagarrak koloreatsua egiten da. Kolore kontua gaur egun elementu negatiboa da. Orain gutxirarte Gipuzkoako eta Goierriko sagarrak ere kolore hori ematen zioten sagardoari. Gaur egun, kolore ahu-leko sagarretara pasatu gara. Sagardoa ona bada, koloreak ez du zerikusirik. Azken batean enologoak sagardogileari erakutsi egin behar dio. Orain arte oso gutxi arduratu dira sagardogileak sagarraren garbitasunarekin. Sagarrak mikrobio asko ekartzen ditu. Sagardoaren muztioan garatzen dena.

- Goierriko sagarra zer moduzkoa dugu?

- Goierriko sagarra onak eta txarrak daude. Goierriko sagarren beldurra egon ohi izan da. Goierriko sagarra beranduago heltzen da, desberdinak dira, klimagatik. Zenbait urtetan, 1997an adibidez, nik Goierriko sagarrak erabiliko nituzke. Galizian, Asturiasen, Normandian... sagar onak eta txarrak daude, Goierri eta toki guztietan bezala.

"Sagardoa, ardoa eta garagardoa bezain edari duina da. Sagardo gutxi edaten da. Marketina falta zaio"

- Zein da sagardo ona egiteko faktore garrantzitsuenak?

- Sagarraren prozesatzea; sagarra txikitzea eta bere

garbitasuna. Sagarra ekarri eta denbora bat pilan eta kanpoan egoten da. Kamioietan ere bai. Momentu horretako klima kontrolatu behar da. Beroa eginez gero, prozesatu egin behar da sagarra. Baina gero klima kontrolatu behar da. Galiziatik datorren sagarrez betetako kamioia ez dadila gelditu Castillan, arratsaldeko 3.00etan...

Fermentazioak ere garrantzia handia dauka. Temperatura jakin batean egin behar izaten da, 15-20 gradu gehienez. Ebitatu eta kontrolatu egin behar da fermentazio prozesua. Temperatura neurtu behar zaio. Desiagarriak ez diren elementuak sortzen badira, kontrolatzen saiatu behar dira.

Sagardoa botilaratzeko momentua ere oso garrantzitsua da. Entzun izan diot sagardoarekin lotutako pertsona bati, sagardoa botilan hondatu, txartu daitekeela. Nik diot, sagardoa botilan beharrezko baldintzetan sartu bada, sagardoa botila barruan denbora luzez ondo mantenduko dela. Itzalean eduki behar da, noski. Bukatua ez dagoen sagardoa sartzean sortzen dira arazoak. Botilara bukatua iritsi behar da.

- Aurten nolako sagardoa dator?

- Azukrez pobre samarra eta garraztasun on samarrare-

kin. Sagardo arin samarrak eta oso finak. Kontserbatze-ko arazoak izango ditu ziu-
rrenik. Sagardoak denboral-
di hasieran oso onak izango
dira, arazoak, kontserbatzen
izango dira.

- Iaz esan zenuen, azken
urteotako sagardorik
onena izan zela iazkoa.
Aurtengoa okerragoa
izango al dugu?

- Horrela esan nuen eta
nahigabe handiak izan ni-
tuen hori esateagatik. Han-
ka sartu nuen, oso arriska-
tua baita pronostikatzea. Iaz
sagardo txar asko izan zen.
Ekainean edozein motatako
alterazioak sortzeko ego-
kiak izan ziren tenperatura
altuak izan ziren. Tenpera-
tura bajuagoa izan balitz,
ziurrenik, sagardo onak edo
oso onak izango ziratekeen.
Aurtengo sagardoa oso es-
tabilitate biologiko gutxi-
koa da. Baina tenperaturek
lagunduko badute, hobeak
izan litezke. Iazko hanka-
sartzea dela eta, ez dut be-
rriro horrelakorik esango.
Eguraldiaren menpe baitago
asko eta asko.

- Zein momentutan dago
onena sagardoa?

- Ona dagoenean. Sagardoa
produktu gaztea da, urtean
kontsumitzekoa. Badaude
sagardo batzuk abenduan
oso onak zeudenak, lehen-
ago etorri baitzen sagarra eta
lehenago prozesatu baitzi-
ren. Prozesatu den garaiak
garrantzia handia dauka.

- Goierriin zer moduzko
sagardoa dago?

- Babarrunekin bezala ger-
tatzten da. Beterrin produzi-
tutako babarrunak eta Goie-
rrin egindakoen artean ez-
berdintasunik egon badago.
Baina niri biak platerean ja-
rriz gero, ez nuke ezberdin-
tasunik nabaritutako, biak
onak. Eta sagardoarekin ere
berdin. Ezberdintasunik ba-
dago Beterriko eta Goierri-
ko sagardoaren artean. Hori
adituek antzemango dute
bakarrik. Baina ez dago
hain ezberdintasun nabar-
menik.



*“Gaur egun
sagarra ez da
gehiegi kontuan
hartzen.
Sagardoa
sagarrarekin
egiten da. Ez da
nahikoa esatea
sagarra
Galiziakoa,
Asturiaskoa,
Goierrikoa edo
Beterrikoa dela.
Sagarrak ona
izan behar du”.*

Sagardoaren etorkizuna botilan

Sagardotegiak modan daude. Txotx denbo-
raldia noiz hasiko zain egon ohi da jendea.
Goierriin bertan, gero eta sagardotegi gehia-
go dago. Aurtun, Lazkaon ireki duten Ame-
bi gehitu behar zaio iaz arte zegoen 13ko ze-
rrendari. Hauxe duzue sagardotegien zerren-
da: Legorretan Aulia; Ikaztegitetan Begiris-
tain; Olaberriarri Etxe-zuri; Abaltzisketan
Zalbide eta Ñañarri; Gabirian Korta; Altza-
gan Olagi; Zerainen Otatza; Gaintzan Oteñe,
Zaldibian Txertakadi; Ordizian Tximista;
Ataunen Urbitarte eta Beasainen Kattalin.

Domingo Harina enologoak adierazi di-
gunez, txotx denboraldia mugatzen da gaur
egun sagardoa, eta oso sagardo gutxi edaten
omen da. Etorkizuna botilan du, Domingo-
ren arabera. “Jendeak ez daki sagardoa pre-
ziazten, baina ikasiko du. Sagardoa, ardoa
eta garagardoa bezain edari duina da nire-
tzat. Baina gaur egun zergatik ez da sagar-
do gehiago edaten? Etxekoa den konplexua-
rearekin gorde izan dugu sagardoa beti.
Kantepokoa beti hobea izan ohi da. Baina ho-
rrelako produktu artisau batek irabazi beha-

rra dauka. Hori bai, lagundu egin behar
zaio. Sagardo ona egin eta merkatura inon-
go lotsarik gabe ateraez lagundu behar zaio.
Sagardoak etorkizuna dauka. Marketing
handia falta zaio. Coca-cola esaterako tele-
bistatik sartu zaigu”.

Gaur egun sagardogileek txotx garairako
puntuan egoteko prestatzen omen dituzte
sagardoak, botilaratzeari begiratu gabe.
“Baina sagardoa botilan produktu ona sar-
tuz indartu behar da. Txotx garaia oso mo-
tza da. Sagardo naturala zuloan sartua da-
go: sagardo ona txotxerako ateratzen saia-
tzen dira. Botilarako sagardo ona egitean,
ahalegina jaitsi egiten da. Zergatik? Txo-
txak aportazio ekonomiko hobea duelako.
Baina biak lotuta doaz. Uztaila-abuztuan
botilako sagardoak ona baldin badaude,
jendea irrikitan egongo da txotxeko sagar-
do edateko. Gure garaian, etxean zegoen
produkturik onena kanpoan saltzeko izaten
zen. Agian, sagardoarekin hori egingo bage-
nu, oraindik ere hobeto lan egitera bultzatu-
ko gintuzkeen”, dio Domingok.

Argitarapenaren editorearen laguntzarekin.

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación

SASITAREN ESKUTIK, INDUSTRI HONDAKINAK GUTXITZEKO ETA KUDEATZEKO PLANA

Goierriko 13 enpresa ingurugiroa hobetzeko ahaleaginean

Industri Hondakinak Gutxitzeko eta Kudeatzeko plana martxan jarri zuen 1995ean Sasieta Mankomunitateak, eskualdeko ingurugiroa hobetu nahian. Goierriko 13 enpresa, euren borondatez, ekoizpen prozesuan aldaketak egiteko prest azaldu dira, hondakinak jatorrian gutxituz eta aldi berean, sortutako hondakinei irtenbide egokia emanez.

1995ean Sasieta Mankomunitatea sartu zen Industri Hondakinak Gutxitzeko eta Kudeatzeko plan batean. Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro Saileko Ihobe elkartetik (Ingurugiro Kudeaketa-rako Elkarte Publikoa) etorri zen plana.



Kalitatea eta ingurugiroa kontutan hartzen hasi da zenbait enpresa

Helburuak bi ziren: alde batetik, industriak, bere prozesuetan sortzen dituen hondakin solidoak, ur zikinak eta keak edo gas kutsakorrak jatorrian gutxitzea; bestetik, sortutako hondakinei irtenbide egoki bat ematea. "Orain dela urte gutxi arte, hondakinei ematen zitzaizkien irtenbideak 'end of pipe' ziren, hau da, prozesu bukaeran, hondakinak behin sortu ondoren egiten ziren tratamenduak. Adibidez, ur zikinen depurado-

rak, tximinietako filtroak, zabortege kontrolatuak, eta abar. Orain filosofia oso bestelakoa da. Ekoizpen prozesuan bertan aldaketak egitea edo 'ekoizpen garbia' lortzea, hondakin hauek sortu ez daitezen. Herritarrokin gertatzen den bezala, enpresa garbiena ez da asko garbitzen duen hura, gutxi zikintzen duena baizik", dio Enrike Enparantza Sasieta Mankomunitateko teknikariak. Eusko Jaurlaritzak filosofia hau

kontuan hartu duela esan digu Enparantzak, eta enpresei ematen zaien diru-laguntzetan, jatorrian irtenbideak ematen dituzten proiektuak saritzen dira.

Plan honetan zeharkako helburu bat ere lortu nahi izan da. "Gure enpresarioek kalitate faktoreak bere enpresatako atal guztietan sartu dituzten bezala, ingurugiroko faktoreak ere neurri berean kontuan izatea. Enpresek bere produktuen kalitatea ziurtatzeko sistematik eta normak ezarri dituzte. Oso ezagunak dira gaur egun kalitatea ziurtatzen dituzten ISO 9.000 arauak. Gure helburua, ingurugiroarekin berdina gertatzen da, hau da, enpresako politikan, produktuen diseinuan, hauen ekoizpenean, kostuetan, eta beste atal guztietan ingurugiroa ere kontutan izatea. ISO 14.000 arauak sartu dira, kalitatea eta ingurugiroa, biak, kontuan hartzen dituztenen-

MUJIKA



BEASAIN ☎ 88 74 00

"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35	Elosegi, 14	Sta. Maria, 19
☎ 88 77 58	☎ 88 72 79	☎ 16 00 44
BEASAIN	LAZKAO	ORDIZIA



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 88 87 02
BEASAIN

tzat", adierazi du Enparantzak.

Ingurugiro auditoretzak

Industri Hondakinak Gutxitzeko eta Kudeatzeko planaren lehenengo zatia 1996an eraman zen aurrera. Bere borondatez plan hone-tan sartu ziren Goierriko eta Urola Garaiko 18 enpre-satan ingurugiro azterketak egin ziren. Goierriko 13 en-presa sartu ziren: Ampo fundizioa, Ampo balbulak (Poyam), Gerra Anaiak in-dustria elektromekanikoa, Hunolt, Eun estanteriak, Es-tanda fundizioak, Gabiria fundizioak, Bilore, Ederra manufakturak, Funcasa, Gelman, Zumarraga ormi-goia eta Urola. Sasietako teknikariaren esanetan, "oso talde desberdina da, alde batetik enpresa txikiak, Ederra edo Eun bezalako-ak, eta bestetik Estanda edo Ampo bezalako enpresa handiak. Beren produktuen aldetik ere oso desberdinak dira, hala nola, kotxeentza-ko piezak, jaboia, herri-mintentzat kirtanak, tintak eta abar. Nahiz eta oso tal-de heterogeneoa izan, gai batetan denak bat datoz, hau da, ingurugiroarekiko duten jarraian".

Ingurugiro auditoretze-tan hainbat puntu aztertu zi-ren: enpresa bakoitzari da-gokion legedia; prozesuen azterketa eta hondakinen gestioa; lehengaien ezauga-riak; prozesu bakoitzeko sarrerak-irteerak eta beraien



Ingurugiroa hobetzeko neurriak hartzen hasita daude Goierriko 13 enpresa.

arteko balantzea; uren ba-lantzea; momentu hortako egoera, aurreko puntuak kontutan izanik; aurkitu di-ren arazoei irtenbideak eta hobetzeko aukera duten puntuei erantzunak; eta neurri hauen azterketa eko-nomikoa. Azterketa hauek ingurugiro kontsultora eza-gunek eraman dituzte aurre-ra, hala nola, Idom, Ikei, Mirandaola, Coopers&Ly-brand, Geolan, Ondoan eta Teknimap. Sasietako tekni-kariak eta Ihobek lan hauen zuzendaritza tekniko era-man dute.

Planaren bigarren zatia

1997an zehar, azterketa guztiak bukatu ziren eta planeko bigarren zatian sar-tu zen. Bigarren zati hone-tan, enpresek, azterketetan proposatzen ziren neurriak aurrera eramaten hasi ziren. Azterketetan proposatutako neurrietatik 70 eramango dira aurrera (36 Goierri eta

34 Urola Garaian). Neurri hauez gain, 18 enpresetako hondakinen gestioa egokitu da, eta gaur egun, gehiengo-ak kudeaketa zuzena egiten du, Enparantzaren arabera. "Asmo hauek benetazkoak dira eta paperean bakarrik ez direla gelditu erakusteko, zera esan daiteke, 70 neu-rrietatik 97an dagoeneko 29 aurrera eraman direla (17 Goierri eta 12 Urola), hau da, neurrien % 40 baino gehiago". Neurrien ezartzea 1999 edo 2000. ur-tean bukatuko da.

Neurri hauen kostu eko-nomikoa 800 milioi inguru-koa da. Hauetatik 260 mi-lioi, ia %35a, dagoeneko in-bertitu dira (160 Goierri eta 100 Urola Garaian).

Enrike Enparantzak, Iri-zar, Ederfil eta CAF enpre-sak aipatu nahi izan ditu, nahiz eta plan honen ba-rruan ez egon, ingurugiroa-ren arloan lan egiten ari di-relako.



Enrike Enpa-rantzak, Sasietako Manko-munitate-ko tekni-karia

Neurri

garrantzitsuenak

Goierriko eskualdeari begi-ira, aurrera eramango diren neurri garrantzitsuenak on-dorengo hauek izango dira.

- Amporen kasuan, ur zi-kinen tratamendu planta bat eta hautsen depura-zio sistemetan hobe-kuntza hondakinak na-barmenki gutxi daitezen.
- Estandaren kasuan, labe-en eraldaketa eta filtro berriak. Hondakinak gutxitzeaz gain, energi elektrikoaren gutxitze garrantzitsu bat ere ger-tatuko da. Aipatu Estan-dak Ingurugiro Gestio Sistema bat ezarrita dau-kala dagoeneko.
- Bilorek, alde batetik fil-tro berria jarriko du, txi-minietako gasen konpo-sagaiak birziklatzeko eta bestetik prozesuan ber-tan aldaketak lehengaiak eta hondakinak gutxitze-ko.
- Eun estanterien kasuan, alde batetik, Ingurugiro Gestio Sistemaren ezar-pena eta bestetik pintu-raren berrarebilpena egingo du, hondakinak gutxituz.

GOIERRIKO KANPO KOOPERATIBA

Ganaduzaleek ganaduzaleentzat sortutako kooperatiba

MOTA GUZTIETAKO pentsuak, ongarriak, lantresnak

Esuskal Herria Kalea
Industrialdea

☎ 88 04 15
☎ 16 07 07

ORDIZIA
OLABERRIA

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

ChristianDior

San Inazio, 14 ☎ 8893 90 BEASAIN

ATAUN

Iazko urtea amaitzearekin bat, argazki lehiaketako sari ematea izan zen udal-letxean. Guztira bederatzi lagunek parte hartu zuten 1997. urteko edizio horretan eta horiek 60 argazki inguru aurkeztu zituzten. Sari-
tuak, berriz, hauetxek izan ziren:

Lehenengoa (60.000 pezeta), Joxe Ramon Agirrerren "Akaitzko basoa".

Bigarrena (25.000 pezeta), Jexux Etxeberriaren "Lareo".

Hirugarrena (15.000 pezeta), Antton Etxeberriaren "Egunsentia".

Gainera, saritutako lehen bi argazkiekin postalak egin dira eta horiekin batera, urtea ondo hasteko edo, egutegi edo kalendario berria ere iritsi zaigu etxeetara Udalaren eskutik.

Labur-labur

● **Otsoa Irratiak** bere emanaldiak bultzatzeko emisora eta antena berriak jarri ditu eta horiei esker Ataun guztira bere ahotsa helerazteko aukera izango du. Dagoeneko 12 urte daramatza martxan herriko es-



Joxe Ramon Agirre 'Marron'-ek irabazi du postal lehiaketa.

kolako irrati honek eta 107,5 Mhz-an emititzen du ostiraletan 13:00etatik 14:15etara.

● **Aitzol Munduate** herritarrak Leioako bertso paper lehiaketan lehen saria irabazi du (30.000 pezeta eta diploma). 15 urte bitarteko kategorian hartu du parte (gaia librea zelarik). Lan saritu horretan, belarritakoa jarri nahi duen semeak bere amarekin duen elkar-
rrietzeta kontatzen digu Aitzolek.

● **Areto fubolean Ataun Urbietak** daraman martxa benetan bikaina da. 12 partidu jokatu eta 12ak irabazi, alajaina! Zorionak eta segi horrela!

Herriko postal berriak



Joxemiel Barandiaran Murkondo kultur

elkartek joan berri zaigun urtearen bukaeran antolatutituen ekintzei buruzko balorazioa bidali digu. Orokorrean pozik daude, nahiz eta ekintzok interesgarriak zirela ikusita, herritar gehiago erakartzea espero zuten. Urteroko ipuin lehiaketa eta lore eskaintza izan ziren arrakasta handienekoak. Ipuin lehiaketaren kasuan, emaitzak hauetxek izan ziren:

"A" ereduan (3. eta 4. maila), lehenengo saria Ioritz Zurutuzak lortu zuen, bigarrena Monika Arratibelek eta hirugarrena Garazi Etxeberriak. "B" ereduan (5. eta 6. maila), berriz, lehenengoa Aitzol Munduate izan zen, bigarrena Aiora Urdangarin eta hirugarrenak Oier Zurutuza eta Alaitz Etxeberria.

Ekintza horietan guztietan parte hartu dutenei eskerrak emanez bukatzen dute kultur elkartekoek euren balorazioa. Argazkia: Olaluzeagako karobira irteera.

● **Ataungo Kirol Elkartek** herriko mendietan zehar "paseotxo" hau egiteko proposamena luzatzen digu: Lizarrusti, Akerreta, Maiziegia, Lareo, Baiarrate, Errekabeltz, Intsusti... eta San Martin. Eguna: urtarri-lak 18. Ordua: 8:45etan. Lekua: San Martingo plazan (Lizarrustira autobusean

igoko dira).

● **Heriotzak** herrian: 1997.aren azken arnasetan joan zitzaizkigun Ignazia Dorronsoro eta Jose Ignazio Aldanondo herritarrak. Euren sendiekin bat egiten dugue euren nahigabea.

Urte Berri on denoi!

Josune Aldabe



88 55 00 ORDIZIA

IBAI-ONDO



ZURGINTZA
ALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK

Antzizar Auzoa, z/g
880543 BEASAIN



LADA
Ssang Yong
N-1, z/g
88 09 47

ARANDIA Garajea

AUTOEN KONPONKETA

Iurre Auzoa
OLABERRIA

LAZKAO

Astotxo egunean astoa protagonista



Urteroko ohiturari jarraituz, urte berriari hasera ona emateko asmotan, aurreko igandean "Astotxo" eguna burutu zen Lazkaon. Aspal-diko ospakizun honek aurt-en ere bere segida izan du Zawopi taldearen eskutik. Azken urteetan gertatzen den bezala, aurt-en ere jende multzo haundia bildu zen herrian "Astotxo" egunaz gozatzeko. Egun honek amaiera ematen die Zawopi taldeak gabonetan burutzen dituen ekitaldi desberdinei, talde honek hain zuzen, beste ekintza batzuen artean, Eguberri egunean jaio-

tza biziduna egin zuen, eta Errege egunaren bezperan, berriz, kabalgata arrakastatsua ere egin zuen. "Astotxo" egunean Zawopi taldeak antolatu zuen antzezpenaz informazio zehatzagoa, 3. orrian daukazue.

Aurtengo "Astotxo" egunak berezitasun nabarmen bat izan zuen. Festa honek astoarekin daukan lotura eta animalia hau urritzen ari dela ikusirik, Ansoategi el-karteak omenaldia eskeini zion astoari.

Ekitaldi honek berezitasun pixka bat eman zion bestela ere arrakastatsua



San Benito ikastolako haurrak saridun

Eusko Jaurilaritzako Merkataritza, Turismo eta Kontsumo sailak antolatutako kontsumoari buruzko ipuin eta komiki lehiaketan San Benitoko 6. mailakoek hainbat sari jaso zituzten: ipuietan Hodei Rodriguezek 1. saria eta Asier Parrak 3.a eta komikian, Iban Cortes, Joseba Blanco, Irati Urteaga eta Yurena Sanchezek 3.a. Abenduaren 19an Bilboko PIN-en jaso zituzten sariak, eskola materialetan gastatzeko bonoak. Bide batez Guggenheim museoa ere ikusi zuten.

den egun honi. Hasteko eta egunarekin girotzen joateko, alborada egin zen herrian zehar. Normalean alboradetan txistu soinuak entzun ahal izaten dira, baina aurreko igandean, lazkaotarrak astoaren arrantzarekin esnatu ginen.

Omenaldi honen zati garrantzitsuena ordea ondoren etorri zen. "Astotxo" eguneko antzezlanaren amaitu ondoren erakusketa polit bat egin zen herriko plazan, bertan Goierriko herri desberdinetan bildutako hogeiren bat asto bildu zituzten. Astoez gain hauekin lotutako hainbat lanabes ere ikusi zitezkeen, hala nola, lerak, gurdiak, alperrea, goldeak

etab. Erakusketa borobiltzeko astoari buruzko bertsoak, pasadizoak, txisteak eta Lazkaoko haurrek eginiko marrazkiak ere ikusgai izan ziren. Lazkaora etorri ziren guztiek, beraz, astoari buruz gehiago jakiteko aukera izan zuten, eta gehienak gainera harritu antzea gelditu ziren hainbeste asto juntuta ikusi gabeak baitziren.

Igandean antolatzaileek ateratako argazkiak ikusgai egongo dira Ansoategi herrikoan eta Gerriko tabernan. Inork ikusi nahi baditu edo kopiarik eskuratu nahi badu bertara azal dadila.

Urko Irastorza
Koldo Urrestarazu

ARRIETA

JATETXEA

88 00 02

OLABERRIA

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

Iues
rothers
BEASAIN

BEASAIN

Kirol eskolarra eraberritua



Guztiontzat ezaguna da, haur eta gaztetxoek eskola garaitik kanpoko kirol ekintzak dituztela; baina agian ez da hain ezaguna berauen funtzionamendua. Duela hiruzpalau urtetik ekintza hauek behar den moduan antolatzeke ekimena burutzen ari da herri mailan, eta aurtengo ikasurtean pauso garrantzitsu bat eman da sistema berri baten ezarpenarekin.

Orain arte, kirol desberdinen proposaketa ikastetxeetatik egiten zen, Udalak diruz laguntzen zuen eta kirol taldeak monitoretaz arduratzen ziren. Baina pasa den irailetik kalitatezko pauso bat eman da. Horretarako, besteak beste, lehenengo aldiz alor honetaz arduratzen den udal teknikari bat kontratatu da, Mikel Garmendia lazkaotarra (S.D. Beasainen prestatzaile fisikoa ere badena). Berak azaldu zizkigun antolaketa berriaren nondik-norakoak.

Zuzendaritza kontseilu batek darama. Udalak, ikastetxeek eta teknikariak osatzen dute eta bertan ezartzen dira lanerako ardatz nagusiak. Erabakien gauzatzea Mikel Garmendiak koordinatzen du. Eta bere azpitik organigraman, kirol

bakoitzeko teknikariak datoz, eta oinarrian eskoletako monitoreak daude. *"Haurrek, eskolaz kanpoko kirol formakuntza izateko eskubidea dute, eta hori bermatzea da gure lana. Planifikazioaz arduratzen gara, entrenamendu saioen kontrolaz, instalazioen egokitzek eta beharrezko materiala lortzeaz"*.

Astegunetako lanaz arduratzen dira. Eta asteburuetan, eskolek antolatutako txapelketetan parte hartzen dute umeek, betiko moduan. *"Benjaminetan ekintza polibalentek egiten dira: futbola, pelota, igeriketa, herri-kirolak, eskubaloia... koordinatzaile berezi bat dago saioak kontrolatu eta akatsak zuzentzeko"*. Txikienen maila honetan lortzen ari omen dira emaitza onenak, beste mailetan helburuak ez dira neurri berean betetzen. *"Alebinetatik jubenetara, espezializa-*

zioa bilatu nahi da. Haurrek kirolak hautatzen dituzte, eta helburua Beasaingo kirol talde desberdinentzako harrobi lana egitea da. Baina argi geratzen ari da taldeak ez daudela behar bezala prestaturik honetarako".

Orokorrean egin den aldaketarik garrantzitsuena, entrenamendu saioen planifikazioa da. Monitore bakoitzak lan programa zehatza jasotzen du adin bakoitzerako ariketa egokienekin, saioei zentzua emanez. *"Praktika ez da erraza hori betetzea. Astean behin ordubeteko saioak besterik ez dira izaten, eta horrela zaila da prestakuntza fisiko eta tekniko egokiak bilatzea. Dena den, ahal dena egiten da, eta gutxienez umeek ondo pasa dezaten saiatzen gara"*.

Honetaz gainera, arazo handienak monitorean prestakuntza falta, materiale eskasia eta zenbait instalazioen falta dira. Dena den, gutxinaka azpiegitura sendo bat eratu nahi da. *"Monitoreak behar bezala prestatzeko ikastaroak egingo dira; eta ikastetxeak bultzatu ditugu material berria eskuratzera. Zenbait instalazioen falta konpontzea zailagoa da. Gainera beldurra edo intentzio falta bat somatu dut ordiziarrekin bate-*

ra lan egiteko orduan. Jendea ez dago prest eta horrek muga handiak ezartzen ditu zenbait kirol garatzeko, batez ere instalakuntza mailan".

Asmuberen ikastaroak

Urte berriarekin Beasaingo emakumeen elkarteak antolatutako hainbat ikastaro martxan jarri dira, eta datorren astean beste bi bideratuko dira. Astelehenez hasiko da 'Excel 97: kontabilitaterako oinarritzko aplikazioak' ikastaroa eta agian oraindik izango da lekuren bat bertarako. Bestalde, astelehenean, Word 97 ikastorako izenemate epea irekiko da. Otsailean zehar emango da azken hau, astelehen, astearte eta ostegun arratsaldetan. Interesatuak, Asmuberen egoitzara jo: Kale Nagusia, 40, arratsaldeko 4.00etatik 7.00etara.

'Antzerki Garaia'

Aurreko urteen modura, Beasaingo eta Ordiziako udalek antolatutako 'Antzerki Garaia' heltzeaz dugu. Aurtengoan, guztira 8 puntako antzerki talde izango dira apirila bitarte.

Saioak, erdibana Usurbe Antzokian eta Herri Antzokian izango dira, hilabetero pare bat eta guztiak ere ostiral gauetz. Lehena, urtarrilaren 30ean iritsiko da, Ttanta taldea 'Shakespeare oso (gutxigora behera)' lanarekin izango da Beasainen. Saioko 750 pezeta izango dira, eta ziklo osorako abonua ere salgai egongo da 4.500 pezetaren truke. (Hurrengo alean izango duzue informazio gehiago).

Aitor Arrue

Elliot Murphy

Musikari amerikar ezagun honen kontzertua izango da datorren larunbatean, urtarrilaren 24an, Usurbe Antzokian 19:30etatik aurrera. Elliot Murphyk 25 urte daramatza musika munduan eta 15 LP grabatu ditu bitartean. Besteak beste, Eric Clapton, Phil Collins eta Bruce Springsteenekin aritu da eta adituen errekonozimendu ugari jaso ditu bere musikak. 800 pezeta kostatuko dira sarrerak eta Usurbe Antzokiko leihatilan eskuragai egongo dira gaurtik aurrera.

ZEGAMA

Jose Migel Azurmendiren gazta saritua



Berriro ere herriko artzain bat zoriondu beharrean aurkitzen gara. Izan ere, Elgoibarko San Silbestre azokan lehen saria ateratzea ez baita txantxetako. Ondoren Deban egindako azokan ere 2. saria eskuratu zuela aipatu digu Jose Migelek.

Artzantzatik bizi den zegamar gazte honek 16 bat urterekin hartu omen zuen bere esku artaldea. Negua Uztaran baserri inguruan eta uda Iramendi izeneko paraje zoragarrian pasatzen du. Gutxi gora behera 22 bat ardi omen ditu, galdera hau ez dute artzainek oso gustokoa izaten, izan ere,

jakin badakigu artzainek beraiek bakarrik jakiten dutela ardi kopurua zehatz-mehatz eta beti gutxi gora beherakoa galdetu behar zaiela.

Gazta egiten neurri handi batean berekasa ikasi zuen eta jendearen gustoari egokitu nahian bi gatzagi mota erabiltzen ditu nahasian.

Gazta ketzeko, gerezia omen da hoberena baina normalean alta erabiltzen du. Sasoirik gogorrean zortzi bat gazta egiten ditu egunean eta ia urte osoan izaten ditu gatzak.



San Nikolas

Urteroko ohiturari jarraituz, aurten ere, hortxe izan genituen Aitxuri herri-eskolako hainbat ikasle kalez-kale San Nikolas eguna ospatuz. 73.450 pezeta jaso ziren eta ikasleek euren artean hartutako erabakiaren arabera, Perura bidali zen dirua.

Bertsozaleak adi!

Bihar, larunbata, urtarrilak 17, bertso saio ederra izango dugu, urtero bezala Batasun Kasinoak, Udalaren eta Kultur Etxearen babesarekin antolaturik. Bertan izango ditugu 1997ko txapelketako finaleko 8 bertsolariak. Udal pilotalekuan izango da bertso jaialdia, gaueko 10.30etan hasita. Berogailua izango da bertan.

Kubara jolasak

Gasteizko Udalak antolatutako kanpainarekin bat egin eta, eskolan, Kubara bidaltzeko jostailuak jaso dira. 14 kaja haundi bete dira. Herri-eskolaren partetik, esker mila herritar guztioi bi ekintza hauetan izan duzuen erantzun onarengatik.

Eduarne Albizu

ZERAIN

Zerralan zerrategiaren inaugurazioa bihar 12.00etan

Zerralan zerrategia martxan jartzeko eguna iritsi da eta inaugurazio ofiziala, bihar, larunbata, urtarrilak 17, izango da. Eguna aprobe-txatuz, Zerralan elkarteko kideekin batzarra egingo da, goizeko 10.00etan hasita, Frontoi estalian. Proiektuaren aurkezpena egingo da bertan, kontuan balan-

tzea ere emango da, aurrera begira eman nahi liratekeen urratsak aztertuko dira eta batzorde edo junta aldaketa egingo da.

Inaugurazioa, 12.00etan izango da, Zerralan zerrategian bertan. Gipuzkoako Diputazioko Nekazari diputatua, Iñaki Txueka, eta

Goierriko alkateak gonbidaturik daude bertara.

Sagardo denboraldia martxan

Atzo, urtarrilak 15, eman zitzaion hasiera aurtengo sagardo denboraldiari, Otatz sagardotegian. Aste guztian zabalik egongo da gauez, asteazkenetan izan

ezik. Larunbat eta igandee-tan eguerdiz ere irekita egongo da. Asteazkenean, eguerdietan enkarguz baka-rrik emango da, Otatzakoek adierazi digutenez. Sagardoa zain duzue, beraz. Aurtengoak alkohol gutxiago omen dauka.

ZALDIBIA

Pottokaren berreskupenerako Elkartea



Galbidean dagoen espeziea da pottoka, hargatik Zaldibia-Aralar Pottoka Elkartea sortu berri dute zazpi zaldibitarrek. Lau bat hilabete besterik ez daramatzate, baina gogoz ekin diote animalia honen berreskurapenari eta jaso dituzte lehenengo fruituak: aurtengo Zumarragako Santa Luziako feritik bi sari eraman dituzte etxera.

Aitor eta Mikel Iraeta, Joseba Arizkorreta, Jesus Mari eta Eduardo Garmendia, Iñaki Goena eta Gabriel Luque elkartu dira aipaturiko elkarte hori sortzeko. Pottoka Euskal Herriko arraza bat da eta ez dauka zer ikusirik barraka eta zirkoetan erabiltzen duten "pony"arekin. Benetako pottoka beltza da. Momentuz 8 behor dituzte bere izen eta guzti. Hauek dira horietako batzuk: Tximas, Loiu, Aspe, Elute, Pottoko, Ipar, Itxusi...

Joseba Arizkorretak azaldu digunez, garai batean, baserri-lanetan erabiltzen ziren pottokak, baina, beste abere batzuen antzera, traktoreak ugaltu ahala pottokak gero eta gutxiago erabiltzen hasi ziren, harik eta 50. hamarkadan, Aralarren, azkenekoak desagertu ziren arte. "Orain gureak bakarrik daude eta artzain zaharrenek esaten digute aspaldian ez dutela pottokarik ikusi" epaitu du Josebak.

Gaztelu Elkartearen batzarra

Gaur gaueko 9.00etan, Gaztelu Elkartearen urteroko batzarra izango delarik, ho-

nako aztergai zerrenda hau jorratuko da: ekonomi egoera, ehiza eta arrantzako gorabeherak, zuzendaritza batzordearen aldaera, bazkide berriak eta galdera erantzunak.

Arrantzale furtiboak

Gaztelu Elkarteko arrantza-arburadunak aditzera eman digunez, mutiko bat baino gehiago harrapatuko dute legeaz eta garaiz kanpo arrantzan. Ez hori bakarrik, amuarrainak arraultzak ipinzen ari direla aprobetxatuz, baita karabinarekin tiroka ere. Beraz, neurri gogorak hartu beharrean aurkituko omen dira.

Horregatik, dei berezia egiten diete mutikoen gurasoei. Izan ere orain, amuarrainekin joaten direlako gozo hartzen badituzte ere, ba omen liteke denbora asko baino lehen disgusturen bat izatea, alegia norbaiten etxera multa iristea.

ZUTen mozioa

Jose Luis Caso Cortines Errenteriko zinegotziaren erailketa dela eta, Zaldibia Udal Taldeak (ZUT) hona-

ko mozio hau aurkeztu du Udaletxean: "Kemen eta indar osoz gaitzesten du atentatu higuigarri hau, dolu-minik sentikorrena azaldu nahi dio familiari, ETak burutu duen atentatu berri honek Euskal Herriko gizaseme eta emakumeon sufri-mendua areagotu baino ez du egiten". Hori dela eta, euskal gizartea osatzen duen jenderik gehienaren desioa aintzat harturik, armak utz ditzan eskatzen dio ETari.

Bestalde, adierazi digute bide berbera erabiliko dutela Jose Ignazio Iruretagoienaren hilketa salatu eta kondenatzeko.

AAKren oharra

Zaldibiko Amnistiaren Aldeko Komiteak "eskerronak eman nahi dizkie herritarrei, amnistiaren alde azaldu duten jarreragatik".

"Egun hauek 'Atxo' gurekin dugun berezitasunarekin ospatu ditugu" -jarraitzen du oharra eta Juan Mari Olano Martuteneko kartzelan dagoela gogoratzten du.

Azkenik, Juan Mari, Josetxo, Juan Manuel eta Kepa gogoratu ondoren, "irtenbide demokratiko baterako urratsak bideratzen aldeko apustua" berresten da oharrean.

Rufino Iraola

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27 ☎ 882007 BEASAIN



GESTORIA Biok


ASEGUROAK

- ✱ Aholkularitza laborala eta fiskala
- ✱ Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 88 44 00 - 88 12 58

Goierrri, 12

ORDIZIA



ARRIZAR BODEGOIA

Eguneroko menua 850 pezeta
astelehenetik ostiralera,
12:30 etatik 15:00 etara

Zaldizurreto, 7 ☎ 88 98 44 BEASAIN

ORDIZIA

Kirol eta kultur elkarteentzako diru-
laguntzak banatuak


Aurreko urteetan irizpide jakinik gabe egiten bazen ere, aurtengoan arautegi berria aplikatuz herriko kultur eta kirol elkarteek dagozkie dirulaguntzak jasoko dituzte Udalaren aldetik. Hau honela, milioitik gora jasotzen zuen elkarte bat, OKEk hain zuzen, 50.000 pezeta eskas jasotzera pasada. Honen arrazoia arautegi berriari dagokion bezala ez erantzutea litzateke. Aurreantzean diru-laguntzak jasotze nahi dituzten elkarteek lehen lauhilabetekoaren barruan egin beharko dituzte euren eskariak, ondoren udaletxean aztertu, partiketa egin eta banatzeko.

Guztira oraingoan 4 milioi pasatxo banatu dira. Honela: Santa Ana eta Oroith Abesbatzek 300.000 pezetana jasoko dute; Ordizia Rugby Elkartea, Balakatakin, OKE Saskibaloia, OKE Igeriketa eta Txindoki Atletismo taldeak 275.000 bakoitzak; Ordizia Antzerki Taldeak 250.000 pta.; Ortzadar Argazki Elkartek 200.000 pta.; Ordiziako Mendizaleak, Ordizia Eskubaloia Taldea eta Ordizia Txirrindulari eskolak 175.000 pta.na; Jai Alai eta

Laguntasuna Errondailak 160.000 pta. bakoitzak; Gazte Asanbladak 135.000 pta.; Jakintza Dantza Taldeak 130.000 pta.; Kimetz-ek 125.000 pta.; Barrenako Pintura Tailerrak 100.000 pta.; Urdaneta Dantza Taldeak 90.000 pta.; OKE zikloturistek 75.000 pta.; eta azkenik Oiangu Pilota Elkartea, Emakumeen Futbito Taldea, Pauso Gaizto, Ordizia Urazpikoak, Ordizia Xake Taldea eta OKE Futbol Taldeak 50.000 pta. jasoko dituzte bakoitzak.

Zehaztu beharrekoak

Urri aldera, 124 zenbakiko kronikan hain zuzen ere, azaldu genizuen Arana kaleko terrazako lanak aurrera zihoazela. Bertan agertutako informazioa guztiz zehatza ez zela eta bertako bizilagunek zehaztasun eske etorri zaizkigu. Izan ere, bertan 10 urte luzetan bizilagunek eginiko lana ez zen kontutan hartzen. Hauen eskutik jasotako idazki bati so eginez zera adierazi beharra dago, enpresa eraikitzailearen eta Arana kaleko bizilagunen arteko auzia bizilagunen aldekoa izan bazen ere, dirurik gehiena azken hauen poltsikoetatik ateratzen dela. Udalari laguntza eskatu ondoren hauek lanen gastu totalaren %35a ipini dute.

Hainbat urtetan tirabiran aritu ondoren, beraz, Arana kaleko bizilagunek egindako bilera mordoek zerbaite-rako balio izan dute eta horikus daiteke terraza erabat berriturik.

Eguberrietako emaitzak

● **Igeriketa:** abenduaren 29an Majorin jokaturako Eguberrietako Igeriketa Sari Nagusian Canoeko Ismael Garcia gizonetzkoetan eta Ashley Tappin estatubatuarra emakumezkoetan izan ziren irabazleak.

● **San Silbestrea:** urte zahar eguneko San Silbestre proban, berriz, Manu Hurtado gizonetzkoetan eta Maider Gaztañaga emakumezkoetan izan ziren nagusi. Partaidetza handia izan zen, bai helduen proban eta baita gatzetxoetan ere.

● **Eskubaloia:** Errege egunean eman zitzaion amaiera eskubaloiko Txeru Memorialari. Espero bezela Corteblando Bidebieta izan zen nagusi finalean ozta-ozta penaltietan Juventud Leganesi irabazi ondoren.

Anti wiskas memoriala

Giro politean jokatu zen urtarilaren 3an III. Anti Wiskas Txapelketa. Lagunarteko izaera duen norgehiagoka honen irabazlea Babatxiki taldea izan zen aurtengoan ere. Harriketarrak-ekoak bigarren geratu ziren eta ohiturari jarraiki Usunbilla-koak azken postuan geratu ziren. Baina hori gutxienekoa izan zen. Izan ere, anexoan jokaturako triangularrak aitzakitza hartuz, ondoren lagunartean denak bildu eta Mendizaleak Elkartean sekulako tripabetea izan zuten. Ziur datorren urtean berriro elkartuko direla.

Aitor Calvillo



Argi Berriko mus txapelketa

Argi Berri Elkarteko mus txapelketako aurtengo irabazleak Emilio Hernandez eta Joseba Auzmendi izan dira. Finalean Xabier Lariz eta Patxi Calvillok osaturako bikoteari egin behar izan zioten aurre. Argazkian irabazleak Angel Iztue-ta presidentea tartean dutela.

SEGURA

Informazio eta eztabaidarako gunea

Herritar batzuren inisiati-baz, kolore eta adin guztietako jendez osatutako eztabaida eta informazio gunea sortu nahi da Segurako herriak dituen hainbat arazoz informatu, eztabaidatu eta aukera edo irtenbide ezberdinak aztertzeko. "Segura aztergai" lemapean lehenengo bilera urtarrilaren 2an egin zuten eta bertaratu ziren 40ren bat laguni euren asmoen berri eman zieten. Herrian jendeak bizi dituen hainbat arazo segituan atera ziren: informazio falta, bariantea, etxebizitzak, biztanleriaren beherakada, plan berezia, industria, turismoa, pasibitatea... 2. bilera urtarrilaren 9an egin zen, oraingoan 35 herritar inguru. Herriarrez osatutako plataforma edo gune honen beharraz eta bere funtzionamentuaz hitz egin zuten. Bertan, taldetxo bat sortu zen, bi bileretan azaldu diren kezka eta galderei forma eman eta informazio eta eztabaidarako gunea martxan jartzeko. Hurrengo bilera urtarrilaren 16an izango da, 20:00etan Kultur etxean.

Herri kontsultari ezetza

Urtarrilaren 9an, EA eta EAJko udal ordezkariak Udaletxean konbokatutako zutuzten lurjabeak erreferenduari buruzko erantzuna emateko. Bertan esandakoak laburbilduz:

● EA-EAJ:

-Aurkeztutako sinaduretan kanpotarrak ere badaudela.

-Gaiak ikutu politikoa duela. Helburua kontra egitea dela.

-Eurak, herriak aukeratu daudela eta herriaren alde ari direla. Ez dela serioa herri kontsulta egitea Udalak



San Sebastian urtarrilaren 25ean

Santuaren eguna urtarrilaren 20an bada ere, aste horretako jaien, 25ean egingo da elizkizuna San Sebastiango ermittan. Urtean zehar auzoan hildakoen aldeko meza 12:00etan izango da eta Juan Jose Garmendia, Etxetxoko Txomin Garmendia gaintzarraren osabak emango du. Ondoren, Udalaren laguntzaz ematen den hamaiketako izango da.

bariantea egitea ikusten badu.

-Kontsultarako galdera gaizki eginga dagoela, trabesiarako ez litzatekeelako dirurik egingo.

● Lurjabeak:

- Herritarrenak ez diren sinadurak asko jota 10en bat izango direla.

- Eurak Udalari egin ziotela eskaria eta ez 2 alderdi konkreturi. Beraz, gaia udal plenoan eztabaidatu eta erabaki behar dela.

- 400 sinadurak botoemaileen %40 ingurua ordezkatzeko dutela eta horri kasurik ez egitea oso grabea dela.

- Bariantarako dagoen dirua trabesiarako pasatzea politikoen zeregina dela.

Azterketa arkeologikoak

Aranzadi zientzi elkarteak urriaren 27an hasi zituzten azterketa arkeologikoen lehen fasea bukatu dute. Guztira, 8 prospekzio egin dituzte eta jasotako guztiare-

kin txostena eginda Udalari aurkeztua diote. 1998an hasitako 2. fasean beste hainbeste dira egitekoak. Orain gainera, etxez etxe pasatzen hasiko dira. Bixita hauetan ez da ezer ikutuko, harresia egon daitekeen lekuetan zer aldaketa eman den edo obrarik egin den informatuko dira etxeak ikusiz eta bertakoein egonez. Aste honetan, arboladian errekarraz egindako zorua azaltzen hasi zaie.

Bola Seguran

Urtarrilaren 11n hasi zen Herreren taldekako bola txapelketa. Joakin eta Jokin Izagirrek, Xepiño, Martxelino eta Antonio Agirrek eta Jexux Mari Intxaustik osatutako taldea 7. geratu zen. Egun bereko bakarkakoan 2.sailkatu zen Jon Agirre 48 birla jota. 2. eta azken saioa Seguran izango da urtarrilaren 18an Txoritegi bolatokia, goizez 9:00etatik 12:00etara eta arratsalde 16:30etatik 17:30etara. Taldeko partaide bakoitzak 8 botaldi egingo ditu.

Kirol eskolarra

Urtarrilaren 10ean, **areto futbole**an 9-7 galdu zuten Laiotzeko mutil alebinek Lizeokoen aurka.jokatutako finalerdia.

Urtarrilaren 11n Elgoibarko mutil alebinen **krose**an, 2.800 metrotan 100 partaidetatik 5. sailkatu zen Eneko Agirrezabal.

Urtarrilaren 17an, **tenis** izango dute mutil alebinek, Seguran Lizeokoen kontra.

Urtarrilaren 18an, **mendi irteera**. Goizeko 8:30etan plazatik irtenda Mariñamendira joango dira.

Futbola

Asteburuko emaitzak:
Errejonak: Segura 3-0 Aloña Mendi. **Jubenilak:** Segura 1-2 S.Herrera. **Kadeteak:** Ostadar 0-6 Aizkorri. **Infantilak:** Aizkorri 1-0 Idiazabal. Infantilek, ligako lehen fasea 2. amaitu dute eta igoera faseko ligaskan hasiko dira.

Asteburuan etxean: Kadeteak: Aizkorri - Eibartarrak, jaien, 16:00etan.

Labur labur

● Elorri K.E.ak herriko hainbat istoriori buruz kaleratu behar zuen liburuskak, arazo teknikoengatik atzeratu egin da eta udaberri aldera ateratzeko asmoa dute.

● Segurako errealearen **peñak** antolatuta, 40ren bat herritar autobusez joatekoak dira Santanderrera, Racing eta Errealearen arteko partidua ikustera, urtarrilaren 18an, 9:00etan plazatik irtenda. "Segurako errealeak" izenez ezin izan dute elkarrekin legezatu eta "Txanbolinpe peña" jarri behar izan diote.

Joseba Telleria

GABIRIA

Oroitz Maiz, etorkizun handiko soinu-jolea



Hamabost urte besterik ez dituen gabiriari honek urrats garrantzitsuak eman ditu jadanik akordeoi edo eskusoinuaren alorrean eta orain arte urratutako bidea ikusi ondoren pentsa daiteke aurrerantz ere zeregina eta zeresana izango eta emango duela musika munduan.

Noiz eta non hasi zinen musika ikasten?

Musika ikasten, berez, 1990eko irailean hasi nintzen solfeoan apuntatuz. Bainan akordeoia handik urtebetera hartu nuen. Solfeo eta akordeoiko ikasketak Ormaiztegiko 'Txinda-

ta' musika eskolan egin nintuen, Amaia Garmendia irakaslearekin.

Handik sei urtera, Irungo Karlos Iturralde akordeoi eskolan matrikulatu nintzen eta bertan nabil gaur egun, akordeoiko ikasketak burutzen.

Zein izan dira lortu dituzun saririk aipagarrienak?

Orain arte, soinu-jole bezala ez dut sari askorik irabazi. 3 urte jarraian, Arrasateko akordeoi jaialdian parte hartu dut; bi zilarrezko domina eta urrezko bat irabaziz. Azkenengo saria eta orain arteko garrantzitsuena, Portugalko akordeoi lehiaketan irabazi nuena izan zen, hain zuzen ere, lehenengoa irabazi bainuen.

Zer suposatzen dizu Portugalko lehiaketak?

Portugalko lehiaketak, batez ere, alor horretan dudarik maila ikusteko balio izan dit, eta beste lehiaketetara joateko ausardia eta gogoia ere eman dizkit.

Arrasateko akordeoi lehiaketan ere parte hartu izan duzu ezta?

Bai, iaz parte hartu nuen lehenengo aldiz eta bertan urrezko domina lortu nuen eta horrek aurten Gipuzkoako akordeoi lehiaketan parte hartzeko aukera ematen zidan eta azaroaren 29 eta 30ean hartu dut parte eta laugarren sailkatu naiz.

Nola ikusten duzu akordeoiaren egoera gaur egun?

Galdera honi erantzuteko,

ez naiz pertsona egokia, oraindik ez nagoelako akordeoi munduan erabat sartua, baina gaur egungo "soinu handiaren" egoera, ez dago trikitixak hartu duen ospearekin konparatzerik, akordeoiak, eta trikitixak ez dituztelako baliabide berberak.

Aurrerantzean zein dira zure asmoak?

Oraingoan, akordeoiari maila honetan eusteko asmoa daukat, sortzen diren lehiaketetan parte hartuz, baina akordeoia eta atabalaz aparte beste instrumentu batzuk ere ikasi nahiko nituzke, dultzaina eta pianoa esaterako.

Gabino Murua

Korta sagardotegiko txotxaldia gaur hasiko da

Sagardoa bere puntura iristen ari dela eta, gaur, hilak 16, hasiko da txotxaren garaia Korta sagardotegian. Txotx garaia hasiera emateko afaria antolatu dute bertakoek trikitilari, bertsolari eta guzti. Afaria gaueko bederatzieta izango da eta sagardotegietako ohizko menua dastatu ahal izango da bertan.

Jatetxekoan esanetan komenigarria litzateke joateko asmoa dutenek aurrez izena ematea 88 71 86 telefono zenbakira deituz. Aurreko urteetan bezala aurten ere bost mila litro dauzkate prest eta aurtengoan bi lekutatik ekarri dute sagardoa bertan fermentarazteko, hain zuzen ere, Ataungo Urbitarte sagardotegitik eta Astigarragako Oyarbide sagardotegitik. Lekuari dagokionez, 80 edo 100 lagun nahiko erraz sartu daitezke eta berogailua ere bada jendeak hotzik pasa ez dezan.



Alpe

MASTER

Elektragaiak
Sukaldeko altzariak

Mariaratz, 4 ☎ 88 86 84 BEASAIN

KEMEN KIROLAK



Zumalakarregi, 1

☎ 88 51 68

ORMAIZTEGI

IDIAZABAL

Herri-krosa hilaren 25ean



Arg.: Jose Luis San Sebastian

Idiazabalgo Herri-krosak XVIII. edizioa du aurten-go. Azken urteetan Sanblasen aurreko asteburuetan egiten den proba honek kanpoko jende asko ekar-

tzen du herrira.

Idiazabalgo Kirol Elkartek urtarrilaren 25erako antolatu du aurten krosa. Proba bi zatitan banatuta egongo da eta kategorien arabera banatu dute bakoitzak egin beharreko lana. Goizeko 11.00etan hasita ondoko kategorien txanda izango da: neska benjaminak (500 m.), mutil benjaminak (500 m.), neska alebinak (1.000 m.), mutil alebinak (1.100 m.), neska infantilak (1.100 m.), mutil infantilak (1.900 m.).

Bigarren taldekoak

eguerdiko 12.00etan hasiko dira lasterka. Ondoko kategorien txanda izango da: neska kadeteak (2 km.), mutil kadeteak (4 km.), gizon helduak (10 km.), emakume helduak (4 km.).

Lasterketa bukatzen duten hurrei domina emango zaie. Kadete eta helduek diploma jasoko dute eta hainbat zozketatan parte hartzeko aukera ere izango dute. Krosean parte hartu nahi duenak irteera ordua baino ordu laurden lehenagora arte du horretarako astia.

Igandean bertan arratsaldeko 6.30etan ardoa edan eta txistorra jateko aukera izango da. Plazan trikitilariak izango dira.

Danborradarako entseiuak

Danborradarako entseiuak hasi dira dagoeneko. Festen aurretik pare bat geratzen dira: urtarrilaren 21ekoa eta 28koa. Arratsaldeko 6.30etan haurren entseia egingo da eta 8.30etan helduena. Biak Guraso Elkartearen aretoan izango dira.

Ainhoa Munduate eta Olatz Nograro

EITBko Trikiti sariketan finalistak izan ziren Ainhoa Munduate eta Olatz Nograro trikitilariak. 8 bikotek hartu zuten parte eta herritarrek 5. egin zuten.

Xabier Urteaga

LEGORRETA

Jende asko kantari

Herriko Amnistiaren Aldeko Batzordeak deituta, azken urteotan lortu den jendetzarik handiena bildu zen Eguberri bezperan, herriko bazterrak kantuz alaitzera. 169.000 pezetatik gorakoa izan zen lortutako dirua.

San Silbestre krosa

Beste leku askotan egin ohi den bezala, Legorretan ere San Silbestre krosa izan zen urteko azken egunean. Eguerdialdiak gehiegi lagundu ez bazuen ere, jende dexente animatu zen parte hartzera. Azken urteetako ohiturei jarraiki, partehartzaile guztien borondatea eskertzeko asmoz piku-zorro bana oparitu zitzaizen.

Honela gelditu zen sailkapena:

5 urterarte: mutilen,

Elizegi-Esnaola eta Goikoetxea-San Sebastian bikoteak txapeldun

Urtarrilaren 4an jokatu ziren pelotalekuan, eskuz binakako Jotakea txapela pelota txapelketako finalak. Kadeteen mailan, Goikoetxea-San Sebastianek 22-14 irabazi zien Amorriz-Zubillagari. Afizionatuetan, berriz, Elizegi-Esnaolak 22-18 irabazi zien Zubizarreta-Garmendiari.

Lander Iparragirre; nesketan, Maialen.

6-7-8 urte: mutilen, Ruben Cambero; nesketan, Miriam Garmendia.

9-10-11 urte: mutilen, Iñigo Garmendia; nesketan, Naiara Olano.

12-13-14 urte: mutilen, Gaizka Arratibel; nesketan ez zen inor irten.

15 urtetik gora: mutilen, Santi Ruiz; nesketan, Oihana Zunzunegi.

Beteranoen sari berezia Joxe Eskitxabelentzat izan zen.

Urte Zahar gava

Urte Berriaren etorrera ospatzearren herritar asko atarra zen kalera hamabi kanpaikadak entzun orduko. Bilkoin Elkartek festa berezia antolatu zuen aurten-goan ere eta Karraixi taldearen musikarekin nahikoa salto eta dantza egiteko aukera izan genuen. Goizeko 7.00etan Guadalupe tabernan txokolatea hartzera azaldu zen jendetzaren kopuruari eta 'piurei' begiratu gero, garbi geratu zen behar bezalako ongi-etorria eman geniola legorretarrok

urte berriari. 1998ko egun guztiak ea lehen eguna bezain zoriontsuak suertatzen diren guztiontzat.

Argazki zaharren erakusketa

Eguberri hauetan Pulit-Zer? argazki elkarteak Kultur Etxean antolatu duen argazki zaharren erakusketa sekulako arrakasta izan du herritarren artean. Bertan gure herriak jasan izan duen bilakaera ezagutzeko aukera izan dugu. Gehienok nahiko izan dugu garai bateko pertsonai horiek nortzuk diren jakin nahirik, eta nola ez, batzuei begira nahiko parre egin dugu.

Josune Amondarain

IÑAXIO IMAZEK EZIN IZAN ZUEN EZKURRAREKIN BATERA TXAPELA LORTU

Binakako erremontean txapeldunorde

Segura beti izan da pelotari eta pelotazaleen herria. Horren lekuko dira, gaur egun 4 pelotari profesional eta beste hainbat afizionatu eta mutiko kirol horretan aritzea. Iñaxio Imaz, 34 urteko segurar beasaineratua da profesionaletako bat erremontean. Pasa den abenduaren 27an, 11 urte hauetan erremontean izan duen lorpenik handiena eskuratu zuen, erremonteko binakako txapelketa nagusiko bigarren postua.

Koteto Ezkurra lagun zuela txapelketan zehar partidu bakarra galduta, Lekunberri anaiei finalaurreko 2 partiduak irabazi ondoren pasa ziren finalera. Bikote faboritua bazen ere, ez zitzairen euren nahi bezalako partidua atera eta Al-tuna II-Etxaberen kontra 40-26 galduz, txapeldunorde geratu ziren.

Eskuz

Iñaxiok berak dioen bezala, txikitan kirol eta jolas nagusia zen Seguran. Gaur, pelotan aritzea, betebeharrak izan badaiteke ere, orduan jolasa zen batik bat. Umeumetatik hasita, ateratzeketan, kanpora-



Iñaxio Imaz, pelotari egin zen Segurako 'Beti alai, aste ta jai' frontoian.

ketetan etapatan, edota pelota pertsianan aritu zen Xaxtreneko Iñaxio herriko beste hainbat mutiko bezala, Beheko Panaderiko paretan aurrean, frontoi zaharrean, koloniatako frontoian, portikopean, txanbolinen edo frontis bat zegoen edozein tokitan. Pelota-

rako zuen dohainagatik berehala hasi zen nabarmen-tzen. Lehenengo txapelketak eskualdean jokatu zituen, Goierri, Legazpin, Zumarragan eta Urretxun. Bera aurrean zela, Barrundianeko Anjel Ugalderekin aritu izan zen ia beti. Gipuzkoako herriarteko txapelke-

tan bi alditan iritsi zen finalera, bietan azkoitiarren kontra galduz; 1978an infantiletan Segura ordezkatzuz eta 1981ean jubeniletan Beasain. Ondoren, beste hainbat herri-tako torneo ere jokatu zituen. Gogoan du, Euxebio Alustiza, Martin Alustizarren anaiarekin Donostiako parte zaharrean jokatuakoa.

Palaz

Palan sartu-irtena egin zuen. Orain 15en bat urte Seguran, Federazioen Txapelketan parte hartu zuten batzurekin larruzko pelotan jokatu zuen.



Imaz eta Insausti beasaindarra, herriarteko txapelketan jubeniletan jokatzeko zutenekoa, 1981ean.

Erramintaz

Erremontean kasualitatez hasi zela esan daiteke, Napparraneko tabernan egoten zen saskizahar bati esker. Hura hartu eta pelota biziren bat aurkituta, frontoi zaharrean aritzen ziren herriko 3-4 mutiko, horien artean Joseba Auzmendi, hau ere erremontean aritzen dena. Galarretara joan ohi ziren herritar batzuk arbolari-tik itxura pixkat bazuela ikusita, Galarretako kantxe-roarekin egon ondoren, 18 urte zituela hasi zen Iñaxio lehen probak egiten Hernanin. Eskuz, beti aurrean arituta, erremontean ere lehenengo koadroetan egin zuen estraineko proba baina distantziekin arazoak zituela eta, atzean jarri eta berak dioen bezala, han geratu zen betirako. 5 urte eman zituen ikasten eta entrenatzen. Tarte horretan ere irabazi zituen afizionatu mailako Gipuzkoako eta Gipuzkoa-Nafarroako txapelketak.

1987ko martxoan, 23 urte zituela debutatu zuen profesionaletan. Harrez gero, Galarretan zein Euskal-en, astean partidu pare bat eta jai garaietan 4 eta 5 ere jokatu izan ditu. Entrenatu, berekasa entrenatzen dute, astean behin edo, frontoira joanez eta partiduak jokatu.

Profesionaletan bi txapelketa ofizialetan parte hartu du, azkenengoan txapeldunorde geratuz. Pasa den urrian, Ezkurrarekin batera, Master Txapelketa irabazi zuen Bilbon.

Joseba Telleria



Lazkao San Inazio auzoko futbol taldea

1966. urtean aterako argazkia da. Lazkao San Inazio auzoko futbol taldea da bera. V. Vaquerok utzi digu argazkia. Futbolariak eta entrenatzaileak honakoak dira:

Zutik: J. M. Ormazabal, J. Ribera, J.V. Azkarate, J. Sanchez, J.M. Azkarate, J.M. Bergara eta R. Estebez.

Makurtuta: V. Vaquero, J.L. Bueno, I. Garziandia, J.L. Mingo eta J. Aiala.

300.000 pezetako bidaia, Arantza Arrutirentzat



Goierriz kanpo joan da GOIERRITARRAREN zozketako saria. Zarauzko Arantza Arrutik bertako Euskal jaietan erosi zion goierritar bati zorioneko txartela.

Erostearekin batera amets eginez hasi zen Arantza, Vietnamera joango litzatekeela... Arantzaren ametsa egi bihurtu da eta abuztu aldera beste lagun pare batekin, joango zaigu Vietnamera.

Argazkian, ezkerretik eskubira, Aitzol Asurmendi Goierritarrak Kultur Elkarteko lehendakaria, Arantza Arruti saritua eta Iker Garmendia Urola bidaiak-eko arduraduna daude sari-banaketan.

Zorionak eta ondo ibili!



SAGARDOA TXOTXETIK GOIERRIN

Sagardotegia



aulia

☎ 80 60 66

LEGORRETA

BEGIRISTAIN

Egunero zabalik 19etatik 23etara
Igandeetan itxita
Eguerdietan enkarguz

☎ 65 28 37

IKAZTEGIETA

AMEBI

*Laster
irekiko
dugu!*



URTE OSOAN
ZABALIK

Sagardotegia

☎ 16 25 23
Zubierreka, 9
LAZKAO

ZALBIDE
SAGARDOTEGIA



Astegunetan 19:00etatik aurrera
Asteburuetan eguerdi eta iluntzean
Txitxarroa eta arraiak parrilan

☎ 65 21 76

ABALTZISKETA

KORTA

Menu berezia 2.200 pzta.
Tortila, txuleta indibiduala, gazta,
menbrillu eta ardo edo sagardoa

☎ 88 71 86

GABIRIA



Sagardotegia, jatetxea
Logelak

☎ 65 40 05

ABALTZISKETA

Olagi



Urte guztian zehar zabalik

☎ 88 77 26

ALTZAGA

OTATZA

Aste guztian zabalik, asteazkena ezik
Larunbat eta igandeetan eguerdiz ere ire-
kita (asteaz zehar eguerditan enkarguz)

Txotx denboraldia 15tik zabalik

☎ 80 17 57

ZERAIN



ETXE-ZVRI
SAGARDOTEGIA

☎ 88 20 49

OLABERRIA

TXERTAKADI

- ✓ Sagardotegiko denboraldian zaba-
lik, maiatza alderarte
- ✓ Denboraldia bukatu eta urte bukae-
ra arte enkarguz irekiko da
- ✓ Igande eguerdi eta gauetan zabalik
- ✓ Astelehenetan atsedena.

☎ 16 13 59 **ZALDIBIA**



TXIMI STA
Sagardotegia

Egunero zabalik, eguerdi eta gauean

Gudarien Etorbidea

☎ 88 11 28

ORDIZIA

URBITARTE



☎ 18 01 19

ATAUN



OTEÑE
ERRETEGIA

☎ 88 98 48

GAINTZA

ANTZIZAR

kiroldegia

polideportivo

ANTZIZAR

beasain

kirola

deporte

con el apoyo de los

profesionales

jakileen

laguntzaz

